

Goi

Goierritarra aldizkaria

387. zenbakia 2010eko irailak 24



**AHUNTZ
GAZTA**

ATAUNGO IKAZKINTZARI OMENALDIA




ALTAMIR
JATETXEA



Altamiran
sukaldaritza
maite dugu

Altamirako kirolgunea / Ordizia
T 685 794 755 / altamira@geri.net



ekatore



Modako arropa eta osagarriak

(Beasainen haurdunen arropa ere badugu)



Egin harpidedun

GOIERRITARRA ☐
urtean 27 euro

HITZA ☐
urtean 67 euro

GOIERRITARRA+HITZA ☐
urtean 72 euro

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	



Etor Mendia

Epa Igor.

Zermoduz Camboya aldean? Hireak bai oporrak...

Hemen zaharrak berri.

Iraila iristearekin batera itzuli gaituk eguneroko zereginetara. Telebistan haurren ikasturtearen berri eman zigutek, baita langileongan lanera itzultzeak eragiten ziguken

'depresioa' ere... Zer sentitzen ote die lanera joan nahi eta nora joanik ez zeukatenek?

Politikan normalkuntza izan omen dek uda honetako tonika; azkenaldian eman deken aurrera pauso bakarra ez omen dek 'nahikoa'; jendez beteta behar lieken Bilboko kaleak beltzez jantzitako kaputsadunez bahituta...

Gure bizilekura mugatuz, kirolean hasi dek mugimendua: Usurbeko igoera ospatu huan beste urte batez, eta egutegian finkatuz zihoak. Josetxo Imazen oroimenezko lasterketa, Ordizia, Beasain eta Lazkaoko kaleak korrikalariz betetzen dikena, gainean diagu. Arriarango duatloirako prestaketa lanetan buru belarri gabiltzak, auzolanean ibil-

Akaso gorputzaldi onean bueltatuko haiz

Camboyatik, bizikleta erabiltzen baidek

garraiobide moduan.

bidea txukunduz. Ibilbide **earra** benetan, erronka polita bere buruaren mugak ezagutu nahi dizkikenarentzat. Asteburuan egin nian lehenengoz korrikako ibilbidea. Korrikakoa zerbait esateagatik, malda bat edo beste oinez ere igo behar izan nizkian eta. Bainan etzeok aitzakiarik, ikuskizuna bermatuta egongo dek. Orain jendea animatzea besterik ez zaiguk gelditzen eta urriaren 2an Arriarango inguruak ikusle eta parte hartzaileez betetzea. Eta eskerrak eman Arriarango bizilagunei antolakuntza lanetan eginda-ko ahalegin eta pagaezinezko lan guztiarengatik.

Hi Igor, akaso gorputzaldi onean bueltatuko haiz Camboyatik, uste diatenez bizikleta erabiltzen baidek garraiobide moduan. Animatuko al haiz Arriarango Duatloian partaideen artean izatea?



Igor Bueno

Sour Sthey Etor.

Merezitako oporrak aprobetxatu nahian... hemen dena berri, ezberdin.

Camboyan, Angkor-en, sekulako tenpluak ikusi dizkian eta orain herrialdetik barrena gabiltzak. Datorren astean muga igaro eta Laos ezagutu nahi diagu, ikusgarria dekela esaten ditek, batez ere Luang Prabang, garai bateko hiriburua, eta aurrerago Thailandiara pasako gattuk, iparraldetik hiriburura eta handik hondartzetara, patxadan egotera.

Arraust! Bidaia honetan badiu hirugarren lagun bat; internet, eta tarteka tweet bat edo twitpic bat ere bidaltzen diagu bidaian berri emanez, batez ere etxekoei zuzenduak, ondo gabiltzala esateko gure era duk, eta internetek distantziak apurtzen badizkik ere, gainontzean erabat

Lasterketa bat gomendatu behar diat,

Angkor eko maratoi erdia, aitzakia bikaina

munduko templu ederrenetakoak bisitatzeko.

ahaztuta gerek Goierriko kontuekin. Albiste potoloak jarraitzen dizkiagu bai, baino hortik aurrea... tust!

Hainbat lasterketa aipatu dituk, bada, animo horiek antolatzen ari zaren guztioi, baina Camboyan egonik, nik ere lasterketa bat gomendatu behar diat, Angkor-eko maratoi erdia, abenduaren 5ean, aitzakia bikaina kirola eginez munduko tenplu ederrenetakoak bisitatzeko. Hori bai, pobrezia gordina ikusi nahi ez duenak hobe du beste nonbaitera joan.

Normalkuntza? Nork dio hori? Ni lehendakarin bate beharrik gabe ari neok bidaiatzen eta hala segitzea espero diat! Utikan publi-politika merkea, sasi-telebista ustela eta telefono mugikorren konpainia handi putreak! Ouff...

Animatzen neok, baino San Silbestre egitera.

GOIERRITARRA diruz laguntzen duten erakundeak:

Alzaga, Arama, Itsasondo eta Legorretakoko udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia

Goi
Goierritarra aldizkaria

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L:
Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO


KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística

Dizebiren testuek pentsarazi egiten dizute, sorpresa
daukate beren baitan gordea, eta sujerentzia
ugaritasun horren azpian, edertasuna dago.



Xabier Mendiguren Elizegi

Edertasuna kale kantoian

Noizkoa duzu lehenengo esperientzia estetikoa? Noiz egin zenuen topo, lehenengoz eta ezustean, edertasunarekin? Izan zitekeen mendi-bista ikusgarri bat, ilunabar liluragarri bat, musika-akorde txoragarri bat, kanta-doinu xarmagarri bat, poema edo bertso bateko hitz-segida harrigarri bat. Nork bere sentiberatasunaren arabera, bakoitzak alor batean izango du, oroitzapen kuttunen kutxan gordeta, halako esperientzia bat edo beste, umetan edo gaztetan bereganatua seguru asko, adinak muga jakinik ez duen arren.

Goierritarrok oro har, eta beasaindarrok bereziki, edertasunaren bat-bateko agerraldi horietarako beste aukera bat dugu aspaldi honetan: edozein kale-bazterretan, lehen pareta soila zegoen lekuan, mural txundigarri batekin egin dezakegu topo, tupustean.

Graffiti esaten zaie orain kalean helburu artistiko batekin egindako pintaketa horiei. Garai batean pintada politikoen bertsio landuagoak izan zitezkeen. Gero, Amerikako hip-hop kulturaren eraginez, hangoen moldean egindako lanak zabaldu ziren gurean ere: letrekin egindako sinadura-jolas asmotsuak askotan, talde-nortasuna edo norbere izaera azpimarratzea zutenak helburu nagusitzat. Giro horretan hasi ginen ikusten, han eta hemen, Dizebi izenpea zuten graffitiak. “Tira, ondo dago”, esaten nuen neure artean, sakonean inportazio kultural hutsa iruditzen zitzaidan arren, ekarpen pertsonal edo kolektibo handirik gabea.

Urteekin, baina, eboluzionatuz joan dira Dizebi edo Igor Rezolaren lanak, trebezia teknikoan irabaziz, agerturiko gai eta motiboetan zabalduz, eta iradokitako mezuetan sakonduz. Ume beltzen aurpegi ederrak margotzen bazituen garai batean (arte mota honen jatorriaren eragina edo omenaldia), adin, genero eta estilo askotako lagunak marraztu izan ditu geroztik, betiere pertsonen erretratueta zentratuz, animalienak ere egiten dituen arren.

Interesgarriagoa iruditu zait azkenaldian hartu duen joera: letrak ez hartzea soilik apaingarri gisa, baizik eta esanahi bat

daukaten adierazpen moduan. Ez gaude mezu sinple edo demagogikoen aurrean, ordea: Dizebiren testuek pentsarazi egiten dizute, sorpresa daukate beren baitan gordea, eta beren sujerentzia-ugaritasun horren azpian, edertasuna dago ezkutu, deskubritu nahi duenarentzat.

Adibidez, herriko hainbat leku estali ditu hitz bakar batekin, baina hasieran ez dakizu hitz hori “legal” den ala “ilegal”, I handi batekin. Oihartzunez beteriko mezu anbigua, gure artean bizi diren hainbat kanpotar legalak ala ilegalak diren jokoan dagoenean, edo aukera politiko baten legaltasuna eguneroko eztabaidagai dugunean.

Asko gustatu zitzaidan pintaketa bat, Beasaingo Kale Nagusian, Bar Agirre zegoeneko orubean egindakoa da, osorik ikustea zaila den arren. Pareta batean bi hitz: “Pertsona” eta “naiz”; erdian, berriz, burdin hesiz itxitako ate bat, eta ate horren atzean pintatuta beste hitz hau: “askea”. Ate hori kartoiz estalita daukate gaur egun, eta zirriztutik begiratu beharra dago esaldi osoa irakurtzeko, barroteen arteko “askea” horren ironiari edo kontraesanari erreparatzeko.

Eta aipatu nahi dudan azkena, Nafarroa Etorbidean, Sukia sukaldean inguruan egin berri duena: kalean esertzeko banku baten atzeko horman, banku horixe pintatu du, eta gainean esaldi hau erantsi: “hau ez da banku bat”. Artearen historiaren pixka bat dakiena berehala ohartuko da Magritte-ren “Ceci n’est pas une pipe” koadro ospetsuaren jarraipen moduko bat dela (eta, atzerago begiratuta, Marcel Duchamp-en paradoxen zorduna), baina horrek ez dio baliorik kentzen inola ere. Aurreko batean, amona eta iloba txikia ikusi nituen paseatzen; graffiti horren aurretik pasatzean, umea begira geratu zitzaion, behatza seinalatu zuen, zerbait esan zion amonari; amonak, orduan, umea besoetan hartu, eta paretan margoturiko aulkian eserarazi nahi izan zuen; ezin noski, hor geratu zen agerian banku pintatuaren gainean idatzia: hura ez zela banku bat. Horra, esperientzia estetiko goiztiar bat.

Eszena bikaina iruditu zitzaidan. Magritte-ri berari irria pizteko modukoa. Eta Dizebi, gure herrikide eta artista hori, harrotzekoa. Zorionak eta eskerrak asko.



kutxa

Bisoi europarra

Salburuan

Birsartze proiektu pilotoa

Bisoi europarra, *Mustela lutreola*, Salburua hezeguneko protagonista bihurtu da. Iberiar katamotzarekin batera, European desagertzeko arrisku handiena duen haragijalea da. Azken urte hauetan, Birsartze proiektu pilotua garatu dute Salburuako hezegunean (Araba).

Habitat galtzea, ur kutsatuak, aleutiana deritzon gaixotasuna, ibilgailuen harrapatzeak eta bisoi amerikarra dira animalia honek pairatu behar dituen arriskuak. Bi espezieak lurraldekoiak izanik gure bisoi europarrak bere lurraldea galtzen du. Bisoi amerikarra handiagoa, oldarkorra, oportunistagoa eta ugaltze tasa handiagoa du. Gainera, errazago egokitzen da toki eta elikadura berrietara.

2003. urteaz geroztik espezie amerikarraren kontrola egiten da Araban, Extremadura-Burgos tartean dagoeneko zabaldutako delako. Burgos eta Sorian ere, lanean ari dira Ebrora iritsi ez dadin, penintsula iparraldeko populazioak babesteko.

Populaziorik onenak Ebro ibaiaren goi partean daude: Errioxa, Araba, Burgos eta Nafarroan. Bestalde, Errusia, Bielorrusia eta Baltikoko populazioak besterik ez daude. Bisoi europarrak jatorrizko banaketa eremuaren %80 galdu du jadanik.

Egoera kritikoetan jartzen dira birsartze programak martxan. Salburua bisoiarentzat leku egokia da: hezegunea da, ibaiak gertu ditu eta saskiak trinkoak ugari eta gainera, ingurunea hesiturik eta zainduta dago.

Pont de Suerteko (Lleida) zentru espezializatuan birpopulatze proiektuetarako bisoi europarrak hazten dira, bisoi



basatien ezaugarri genetiko antzekoei eusten dietenak.

Birsartze pausoak honako hauek izan dira: 2007an bi kaiola ipini ziren. 2008ko apirilean ernari zeuden bi eme ekarri zituzten. Bisoiak hiru hilabete behar ditu helteko eta tarte honetan elikatu egin zituzten. Kaiolak ingurua imitatzen du eta giza harremanak oso txikiak ziren. Abuztuan ama eta kumeak askatu zituzten eta 'radiotrac-kinga' erabiliz jarraipena egin zuten. Salburuko bisoi bat Nafarroako Arakil ibairaino iritsi zen.

2009an 16 bisoi, zuzenean edo kaiolan egon ondoren, askatuak izan ziren. Lehen urteetan askatutako bizi-iraupen tasa %29 izan zen lehenengo lau hilabeteetan eta 2009an %44. Heriotza gehienak harraparitza naturalaren ondorio izan ziren baina bisoi amerikarraren eragina ikusi zuten iaz.

Proiektu pilotu hauek Estonia eta Alemaniaren antzekoak egiten ari dira arrakastatsuenak bilatu nahian.

2011rako penintsula osoan bisoi europarraren birsartze plan orokor bat egitea litzateke hurrengo urratsa. Beraz frogekin jarraitu behar da.

Gure eskualdean Bisoi europarra ikertua izan zen. 'Bisoi europarra (*Mustela lutreola*, L.), mundutik desagertzeko arriskuan dagoen Karniboroa Goierri' I. Irizar, I. Villate, J. Gonzalez eta N.A. Laskurain X. Gerriko Ikerlan-bekari esker ikerketa burutu zuten. Emaizten arabera, hamar ale baino gutxiago bizi ziren eta beraien biziraupena bermatzeko eta indartzeko beharrezkoak dira neurri zorrotzak hartzea. Ibai-sistemen osotasuna zaintzea (landareria, ertzen zabaleroa, egitura, aniztasuna...), ez uraren kalitatea bakarrik eta giza ekintzek (azpiegiturak, basogintza, bide gorriak...) inpakturik txikiena eragitea.

Bestalde, Salburuako proiektuaren arrakastak Goierriko bisoi europarraren populazioa handitu eta estabilizatzeko balio dezake.

Iturria: Elbuiar aldizkaria

JAKIN BEHARREKOAK

Monsantosen elikadura subirotasunaren aurka-ko ekintza salatu nahi du Haitiko 'Via Campesina'-k. Transgenikoen enpresa honek 475 tona genetikoki eraldatutako haziak, pestizidak eta herbizidak 'oparituko' ditu. Via Campesinarentzat 'opari' honek ingurugiroari, nekazaritzari, bertako haziei eta nekazariei kalte handiak eragingo dizkie. Nazioarteko elkartasuna eskatzen dute ekintza hau ezeztatzeko.

Ordesako parke naturalean bisitariak kontzientziazteko ekintza berria.

Apolo tximeleta *Parnassius apollo* oso ugaria zen baina aldamen klimatikoaren eraginez (gune hotzetan bizi baita) bere populazioa asko txikitu da. 'Interes Berezia' duen espezie honen ikerketan laguntzeko bisitariak behaketa fitxa batzuk banatzen zaizkie. Tximeletaren deskribapena azaltzen du eta tximeleta ikusi duten lekua, ordua eta eguraldiaren datuak idazteko aukera ematen du.

Oxigenorik behar ez duten hiru animalia-espezie aurkitu dituzte Mediterraneoan.

L'Atlante arro hipergazia eta anoxikoan egin duten ikerketan azaldu dira. Loricifera filumeko izaki hauek 3.000m sakoneran bizi dira eta milimetro bat baino txikiagoak dira. beraien bizi-ziklo osoa oxigeno gabe egiten dute.

 **landarlan**
ingurumen taldea

Landarlan taldeak egindako orrialdea. Taldean parte hartu, gairen bat aportatu edo albisterraren bat bidali nahi baduzu:
☎ 943161244 landarlan@yahoo.es

Salburuako proiektuaren arrakastak Goierriko bisoi europarraren populazioa handitu eta estabilizatzeko balio dezake.

Denetik (XLI)

Maizpide euskaltegia

Ditzakegu ala ditzazkegu?

Bada, lehenengoa lagunok! Egia da 'z' hori singularra plurale-tik bereizteko erabili izan dugula hainbatetan (daukat/dauzkat, doa/doaz, dagokiku/dagozkigu...), baina goiko adibideko 'ditzazkegu' horren 'z' hori sobera dago!

Ez dira hiztun gutxi, halere, kalean, etxean, edozein komunikabidetan, Goierrin nahiz Euskal Herri osoan, txukun erabiltzen ez dutenak; beraz, eta aurrerantzean joera hori aldatu dadin, hemen txue doakie zalantza dutenei 'taula argigarria':

Singularra	Plurala
Dezaket	Ditzaket
Dezakek/N	Ditzakek/N
Dezake	Ditzake
Dezakegu	Ditzakegu
Dezakezu	Ditzakezu
Dezakezue	Ditzakezue
Dezakete	Ditzakete

✓ Aralarren txondorra egin **dezakegun** galdetu diogu Ataungo alkateari. (egokia)

✓ Litxarrieriak denon artean bana **ditzakegu**. (egokia)

✗ Litxarrieriak denon artean bana **ditzazkegu**. (desegokia)

Beraz, ahaztu beste hauek:

Zuzenak Ez Direnak!

- *Ditzazket
- *Ditzazkek/N
- *Ditzazke
- *Ditzazkegu
- *Ditzazkezu
- *Ditzazkezue
- *Ditzazkete

Ez dakit egingo badu

Hiztun txukunak Etxepareren hizkuntzan zeharreko galderak edo zehar galderak egiten dituenean ez luke goiko adibidekoa bezalakorik santa sekula esango, baina txoko honetan hamaika aldiz adierazi dugu ez dela nolanahikoa egitura traketsak gure hizkuntzan duten "arrakasta". Gaurko hau oso hedaturik dago, zoritxarrez, Hego Euskal Herri osoan (gaztelaniazko 'si' guztiak euskaraz 'ba-' direlakoan, to 'oparia!'). Ea hogei urte barru desgerturik dugun!

✓ Ez dakit Joxek datorren urtean txondorra egingo **duen** berriro! (egokia)

✗ Ez dakit Joxek datorren urtean txondorra egingo **badu** berriro. (desegokia)

✓ Txondorra egiten **badu**, gu bantxe izango gara. (egokia)



Santos doktoreak hainbat esperimendu egin ote ditzake?

ZUZENDU, BEHAR IZANEZ GERO...

1. Ez dakit Igor Antonek datorren urtean Espainiako Vuelta irabaziko duen, baina bejondeiola aurtengoagatik!
2. Mikel Nieve taldekideak ere gauza handiak egin ditzake aurrerantzean!
3. Ez dakigu Santosek baimena izango badu, baina hezurdurak ezin ditzazke esperimendu arraroak egiteko erabili!

OHARRA: Azkena ez da zuzena, (Santosek baimena izango duen eta ditzake) behar du.

20¹⁰11
kurtsoa
maizpide

Ordukako ikastaroak.
Euskara-planak
enpresa eta
erakundeentzat.

C-1 maila on-line.
Autoikaskuntza.
4. maila.

Barnetegian
hilabete
ikastaroak.
Familia
euskaldunetan
egoteko aukera.

Larunbatetan
goi mailako
ikastaroak.

euskaltegia-barnetegia • lazkao • 943 88 92 31 • lazkao@maizpide.com



Irailaren 26an, Ohitura Zaharren eguna ospatuko da Ataun San

Ikazkintzari omenaldia

Ohitura Zaharren eguneko protagonista, ikazkintza eta ikazkinak izango dira. Mendeetan zehar, Ataunen historian garrantzia handia izan duen lanbidea izan da ikazkintza. Irailaren 8tik txondorra piztuta izan dute San Martinen. Irailaren 26an, ikazkintza lanbideari buruzko istorioak erakutsiko dituzte, ikazkinen omenez. Joxe Bikuña ataundarra gidari hartuta, mendeetan atzera egin dugu, garai bateko ikazkinen bizimodua ezagutzeko.

Ikazkinak eta ikazkintza gaia aukeratu dute Ataungo III. Ohitura Zaharren egunerako. Irailaren 8tik txondorra piztuta eduki dute, herritarrei ikazkintzaren prozesuaren berri eman nahian. Igandean, irailaren 26an, Ohitura Zaharren egunean, Ataungo ikazkintzaren inguruko erakusketa eta antzezpenak ere izango dira.

Migel Arratibel, buru; Joxe eta Ignazio Mari Arrondo anaiak, Joxe Bikuña eta Ignazio Sukia lazkaotarraren lana izan da txondorra egin, gau eta egun zaindu eta ikatza ateratzea.

Joxe Bikuñak, ikatzaren prozesua baino gehiago azaldu digu: ikazkintza lanbidea bera eta Ataunen ikazkintzak mendeetan izan duen garrantzia. “Ataunen ikazkintza, gizaldietan, fabrika izan da. Ikazkintzak hainbat etxetako zuloak estali ditu. Baserriak txikiak ziren gehienak, eta familiak handiak. Garia, urte erdirako edo laurdenerako izaten zuten, baina urte osoan jan behar zen. Okindegian eta errotan, makila tipoko egur batzuk izaten zituzten eta han koxkak egiten joaten ziren zorrak markatzen. Gero, menditik etortzen zirenean, hortik kobratzen zituzten xoxekin ordaintzen omen zituzten”, azaldu du Bikuñak.

Ondorioz, ikazkin asko izan omen zen Ataunen. “Ataungo lanbideei buruz, xehetasun handiz, On Juan Arin Dorronsorok idatzi du eta bere idatzietan oinarritu gara. Hark esaten zuenez, XIX. gizaldiaren hasieran, 400 eta gehiago ikazkin aritzen ziren basoan”.

Ataungo industria izan den ikazkintzaren inguruan pertsona asko mugitzen zen. 14 hilabeteko prozesua izaten baitzen. Joxe Bikuñak azaldu digu pausoz pauso.

Markaketa

“Normalean basoak Udala-renak ziren. Eta Udalak, irail-ean, basozainak, hautetsi batzuk, eta tasatzaileak markaketa egiten zuten. Ez zuten basoa erabat botatzen; bakandu egiten zuten. Zein



Erabilera ezberdina

Zergatik hasi ziren ikatza egiten?

Gure kulturaren aro bateko zatia da ikazkintza. Egurra zegoen lekutan egiten zuten ikatza. Gehienbat, Sahatsamendi mendizerran. Aitzarte aldean ere bai. Ataunen ikazkintza lehenagotik ere bazen baina batez ere ugaltu omen zen, Larruntzako ola egin zutenean. Ikatza behar zuten, burnia lortzeko. Adibidez, 500 kilo egurrek sortzen dituen kaloriak, 100 kilok edo gutxiago ikatzek sortzen du kaloria bera. Garraioa asko errazten du, kilo gutxiago behar direlako. Hautsak eta ondorioak ere gutxiago uzten ditu.

1950. urte ingurura arte lantoki askotan erabili izan da ikatza. Baina Asturiasko ikatza ekartzen hasi ziren eta horrekin gasogenoak sortzen zituzten. Gas gehiago sortzen zuenez harriak, egur-ikatza baztertzeko hasi zen.

Zertarako erabili izan da ikatza?

Ola eta sutez aparte, gerra ondoren, gasolina eskasia izan zen. Kamioiak eta autoak ibiltzeko sistema bat atera zuten: gasogeno sistema. Kamioietan, kabina eta karrozeri tartean, bi bonbona handi jartzen zituzten. Bat ikatzarekin betetzen zuten. Sutu eta harek ematen zuen gasaren bidez ibiltzen zen motorra. Gasolinarekin bezain aguro ez omen ziren ibiltzen. Denboratik denborara gelditu egin behar izaten ziren, sua aztoratzeko. Ikatza bukatu bazen berriro bete... Guk ezagutu genuen, baina ez daukagu argazkirik.

Terrenoen mugatan, mugarrien azpian jartzeko ere erabiltzen omen zuten ikatza. Mugarrira egiaztatzeko, teila kosko bat eta ikatz kosko bat jartzen omen zituzten.

Garaian batean, hortzak garbitzeko ere ona izan omen da. Ikatza hautsa egin eta hortzak garbitu. Gainera esmaltea hondatu gabe. Esan ohi da, ikazkinek hortzak zuriak izaten zituztela. Nik ez dakit hala zituzten ala ez, baina aurpegia beltz zekartenez, kontrastean hortzak zuriagoak emango zuten.

Gaur ikatza gehienbat, brasan, arraina eta haragia egiteko erabiltzen da.

Pago egurrekin egiten al zuten ikatza?

Edozein egurrekin egiten omen da ikatza. Gaztainondoari gaitz bat sortu zitzaion eta gaztainadiak bota egin zituzten. Egur horrekin zerbait egiteagatik, ikatza egin zuten. Ikatz hori berezia omen zen: sutegian, pago-ikatza erretzeko ona bai, baina haizea sartzen ziotenean txinparta asko sortzen omen zuen. Sutegi horietarako berezia egiten omen zuten gaztainarekin. Gaztain-ikatza ez omen du txinpartarik botatzen.

zuhaitz bota behar zuten adierazteko, ipurdian seinale bat egiten zioten: azala kenduta, koska bat egiten omen zioten eta gorago beste koska bat, errazago ikusteko zein zen bota behar zutena. Beheko koska hori beti han gelditu behar zen, seinale bezala, markatutako zuhaitza bota zutela adierazteko. Ikusten denez, jendeak marka hori egiten ikasi zuen eta orduan beste irteera bat asmatu zuten. Aizkora bereziak egin zituzten: alde batek ahoa zuen eta bestetik zigilua. Hori zailagoa zuten kopiatzen”.

Lantegia

Urte hasieran “lantegia” ateratzen zuten. “Ikatza ateratzeko erabiltzen zuten zuhaitz lote horri deitzen zaio lantegia. Subastan edo enkantean ateratzen zuten. Alkateak enkantea deitzen omen zituen lantegi nagusiak. Nagusi horiek, herrikoak izaten ziren normalean. Jarritako egunean, alkateak kandela bat pizten omen zuen eta kandela itzali arteko epe horretan egiten ziren eskaintak ziren balekoak. Horien artean, hoberena eskaintzen zuenarentzat gelditzen zen lantegia”.

Baldintzak eta arauak

Herriko basozainak, lantegia- ren nagusiari bere betebeharrak zeintzuk ziren irakurtzen zizkion. Markatu gabeko zuhaitzik ez zuela botako, San Joan aurretik txondorrik ez zuela piztuko, kuku gelditzen direnak eta eskolbidekoak bota behar zirenez berari abisatu behar ziola... “Kuku gelditzen den arbola, arbola ipurditik moztu eta lurreratu gabe, beste zuhaitz baten kontra gelditzen dena da. Lurreratzeko beste arbola ere bota behar da. Eskolbidea berri, ondoan beste arbola bat eduki eta aizkorarekin botatzeko lekuri gabe gelditzen direnean deitzen zaio. Bi kasuetan, arbola botatzeko eskubidea badute, baina aurrez basozainari adierazi behar diote, berak ikusi ditzan”.

Baldintza gehiago ere baziren. Pagoa (gehiena erabiltzen dena) ilberrian bota behar zela; haritza eta gaztaina, ilbeheran.

“Zein isun izango zituzten ere jakinarazten zioten: markatu gabeko arbola bat botatzegatik 10 pezetako isuna; txondorra lehenago pizten baduten berak egindako eskaintzari beste koska bat erantsiko diotela eta abar. San Joan aurretik ez piztearen arrazoia omen da, egur hezeekin ikatz hobea egiten delako. Gutxiengo bai, baina hobea egiten omen da. Orduan, ikatz hori prezio altuagoan saltzen zuten. Beraz, Udalak ere igoera hori aprobetxatu nahi zuen”.

Ikatz-mutilak aukeratzea

Nagusi bat lantegiarekin gelditzen zenean, nagusi horrek San Gregorioko festak aprobetxatzen zituen (martxoaren 12an izaten ziren lehenago), bere ikatz-mutilak aukeratzeko. “Ikazkinak, Zegama aldetik ere etortzen ziren. Beraien emazteak linuarekin oihala egiten zuten. Herritik kanpora zeuden txaboletan bizi omen ziren”.

Basora

Pazko Hirugarrenean igotzen ziren mendira. “Gustura joaten omen ziren mendira, txulo jantzita: alkandora zuria, apreta zuria, zapi gorria lepoan, soinua joaz, pozik joaten ziren, txanpon batzuk ateratzeko bidea zutelako. Pardela eramaten zuten bizkarrean. Herramientaren



Txabola

Basoan gau eta egun egoten ziren ikazkinak. Basora joan eta lehenengo lana, lotarako eta jateko estalpea egitea izaten zen. “Bi zati izaten zituen txabolak: bat, lo egitekoa, kamastroa esaten ziena; eta bestea, eguraldi txarra egiten zuenean bertan jan eta sua egiteko. Kamastroa egiteko, azpian arba batzuk bota, buru aldea pixka bat goraxeago zeukatela. Horrengainean txilarra jartzen omen zuten. Eta txilarraren gainean, ardi larrua eta gainetik manta zahar batekin lo egiten omen zuten. Bi isuriko txabola izaten zen”.

Ataunen, neurri txikiagoan, baina horixe irudikatu dute egunotan. Berez, txabolak handiak izaten baitziren, ikazkin koadrila handia aritzen baitzen txondorren bueltan. “12koak, handiagoak eta txikiagoak ere bai. Familia mailakoak ere izaten omen ziren. Derrigor sail handiak aritu behar! Guk azken aldera ezagutu genuen, Zumarragako Orbegozok egunero-egunero 4-5 kamioi eramaten zituela. Lastima da, ez dugu argazkirik aurkitzen. Nik begi aurrean daukat: marroi kolorekoak ziren eta aurrean, motorrean, bi hizkirekin: I eta H”.

Txabolaren atarian, atakan, “erramu adarra, elorri zuri adarra, Eguzki lorea, eta erramu egurrekin egindako gurutzea jartzen zituzten. Txabolaren ondoan, aizkora bat jartzen omen zuten, ahoz gora. Tximistengandik babesteko omen zen, tximist-orratza bezala. On Juanek dio, ekaitzak sortzen zirenean, txabola barruan belauniko jarrita Santa Barbari errezatzen serio aritzen zirela. Sobrare ez zeukaten segurtasun osorik tximistorratz horrekin”.



Iñauti Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO 602 Zbk. KOLEGIATUA

HAURREN ETA HELDUEN ODONTOLOGIA OROKORRA
RADIOGRAFIA PANORAMIKOA ETA ZEFALOMETRIKOA
ODONTOLOGIA ESTETIKOA (ZURIKETA)
KIRURGIA
ORTODONTZIA - PERIODONTZIA

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28

ZAHARRA • BERRI

IGELTSERITZA ETA ERAIKYNTZA

A. Almeida
620 32 62 92
943 18 03 72
aiakoerrota@terra.es
ATAUN



Eraikuntzak
Gremioen koordinaketa
Erreforma orokorrak
Teilatuak

2 otordu eta lo gutxi

Ikazkinei otordua prestatzen zien sukaldaria izaten zen basoan. Arrantxeroa deitzen zitzaion. “Mutil gazte bat izaten zen, arrantxeroa esaten ziena edukitzen omen zuten. Nagusiak ordaintzen zien mantenua: egunean bi otordu. Goiz erdian bat eta arratsalde erdian bestea. Arran-txeroaren eginkizuna, babak egosi eta taloak egitea izaten zen. Babak txerri manta-ka pixka batekin egosten zituzten. Gerora hirugarren otorduren bat egiten omen zuten, baina hori norbere poltsi-koetik ordaindua”, dio ataundarrak.

Txondorra gau eta egun zaindu behar izaten zen. “Argitik argira egiten zuten lana eta gauean ere txondorra zaintzen aritu behar zen. Ikazkinen nekeetariko bat nik uste dut zela, lo gutxi. Beti lo faltan ibiltzen ziren. Etxera joan eta ohean gau guztian lo egitea, hori izaten omen zen beraien ametsa”.



bat ere bai. Pardelean, bi aldagarri eramaten omen zituzten: bat jaietarako eta bestea astegunetarako. Txapela, alkandora, gal-tzak...”

Basora joan eta lehenengo egiten zutena, txabola egitea izaten zen. “Ahal dela, zuhaitzen baten adarra aprobetxatzen omen zuten gain-haga jartzeko. Goitik behera arabak eta garoa jartzen zituzten”.

Hondo-jotzea

Zuhaitzak botatzeari deitzen zitzaion hondo-jotzea. “Ondoren, zuhaitza puskatzea zetorren. Metroko puskak egiten omen zituzten. Enbor oso lodiak zirenak, pitzatu egin behar zituzten. Horretarako burni-ziriak eta porrak erabiltzen zituzten. Baita beraiek egindako egur-ziriak ere. Azkenaldian, dinamita ere erabili omen zuten enbor handiak txikitzeko. Orbegozok ematen omen zien dinamita. Taratuluarekin zuloa egin, kartuxoa sartu, lurrearekin estali, metxari sua eman eta txikituta uzten omen zuen enborra”.

**Argitik argira egiten zuten lana.
Gauean ere zaindu behar zuten.
Ikazkinen nekeetariko bat, lo
gutxia izaten zen.**

Eramatea

Hurrengo pausoa, egur hori, txondorra egin behar zuten lekura eramatea izaten zen. “Lan astuna zen. Dena bizkarran eraman behar zuten. Goitik behera zenean ez ziren hainbeste nekatuko baina goraka zenean bai.

Horretarako, ‘astoa’ izeneko tresna erabiltzen zuten. Lau hanka bezala ditu gora eta hor jartzen zituzten egurrak eta errazagoa zuten eramatea”.

Aurretik txondorra egin-dako lekua erabitzen saiatzen ziren txondor berria egiteko.

Horren arrazoia azaldu digu Joxe Bikuñak: “basoa normal-ki aldapan egoten denez, hura zelaitzea kosta egiten da. Beste abantail bat ere bazuen horrek: txondorra egindako lekuan hauts berezi bat egoten zen, ‘iruria’ deitzen zai-ona. Hauts berezia da, lurra eta ikatz-hautsa erreta. Oso iragazkaitz ona da, txondorra-rentzat oso ona”.

Egoslea

Txondorra egitetik egosi bitarteko lanaz egoslea ardu-ratzen zen.

Ateratzailea

Behin ikatza eginda gero, beste pertsona bat arduratzen zen ikatza atera, zakutan sartu eta prestatzeaz. Ateratzailea deitzen zioten. “Gaineko kapa poliki-poliki kendu, ikatza atera, berriro tapatu... Ikatza ateratzeko oinetako ezberdi-nak zituzten, abarken gainetik jartzen zituztenak. Oin-olak, ohol pusketak ziren, abarkari lotzen ziren, beroak abarkak ez hondatzeko. Beste batzuk, txankla antzekoak omen ziren, abarka sartu egiten zena”.

Txondorra

Ataundar talde bat otsailean hasi txondorra egiteko prestakun-tza lanetan. “Otsaileko hilberrian moztutako Aralarko pago egurra ekarri, maiatzean egurra txikitu behar den neurrietara, abuztuan txondoraren egitura eraiki, eta irailaren 8an piztu zuten”. Migel Arratibel buru zela, Joxe eta Ignazio Mari Arrondo anaiak, Joxe Bikuña eta Ignazio Sukia lazkaotarra aritu dira txondorra zaintzen. Ohitura Zaharren egunean, Migel Arratibeli oroigarria eskainiko zaio, ikazkin guztien ome-naldi gisa.

Txondorretik ateratako ikatza saltzen ari dira ataundarrak. Herritarrek izango dute lehentasuna. “Harrapataka kentzen ari zaizkigu”, dio Joxe Bikuñak.

Ikatz neurria: karga

Ikatza, karga neurriarekin neurtzen zen. "Oso sagratua omen zen. Saski lauki handi batzuk ziren. Ataunen ez dugu aurkitu baina San Telmotik aterako eredutik egin ditugu bi saski. Gerora neurri beharrik ez zeukaten. Zakuak estandarizatu zirenean, zakua bete eta kitto. Zakua erabat zilindriko gelditzeke, muturrean zumitzez egindako estalki bat jartzen zioten. Ikatzaren munduan, karga da neurria. Karga bat, bi zaku dira. Ez da pisua neurtzen, bolumena baizik", azpimarratu du Bikuñak.

ri erantsita erabiltzen zituzten, treneko bagoiak bezala. Gerora, azkenaldera, itzainak ere ibili omen ziren lan horretan, gurdiaekin. Sobrare bideak hobetu zituzten, baina gehienak mandozainak ibili ziren. Mandozainak, Ataungo tabernetan egoten ziren apopilo. Mandoak edukitzeko ikuiluak izaten zituzten".

Itzulera eta ordainketa

Alkandora zuriarekin eta apreta zuriekin joaten ziren ikazkinak, belztutata itzuliko ziren. "Hori irudikatuko dugu irailaren 26an. Baina pozik etortzen ziren. Nagusiak herrira itzulitakoan ordaintzen

**Guk azken aldera ezagutu
genuen, Zumarragako Orbegozok
egunero egunero 4 5 kamioikada
ikatz eramaten zituela.**

Mandozainak

Ikatza zakueta sartuta, basotik herrira jaitea izaten zen hurrengo lana. "Garai hartan basoan ez zen pistarik eta bide onik, eta mandozainak ibiltzen ziren lan horretan. Mandozainak normalean hemendik kanpokoak ziren. Arano aldekoak asko eta Ameskoa aldekoak ere bai. Mandozain bakoitzak, 3-4 mandorekin karroa egiten zuen errepideko puntu batera. Mando horiek, bat bestea-

baitzieten. Taldean 'listeroa' izaten zen, nork zenbat lan egiten zuenaren kontuak eramaten zituena. 1930 urte inguru horretan, eguneko 5 pezeta ordaintzen omen zen.

Pazko hirugarrenean igo eta taldeko azkenak, San Martin aldera jaisten ziren herrira. "Batzuk lehenago bidaltzen omen zituzten, lana gutxitzen zenean". Ikazkinak txanda jaisten ziren herrira, "meza entzutera jaisten omen ziren, baina astero ez".



Ohitura Zaharren eguna, irailaren 26an

Goizeko 10,30etan hasiko da III. Ohitura Zaharren eguna. Egun horretan, antzinako ikazkinen ohituren berri emango da. Tartean hainbat antzeppen izango da, 12:15ak aldera hasita: mendira joatea; menditik jaitea; ikazkinen ordainketa... Jarraian, Ataungo ikazkinei omenaldia egingo zaie. Migel Arratibelek jasoko du oroigarria. Ondoren txondarra ikusteko aukera izango da. Txondarrean egindako lana azalduko da, eta prozesu guztiaren bilakaera argazki bidez ikusteko aukera izango da. Egindako txondarretik atera den ikatza salgai egongo da egun horretan ere.

14:00etan, herri bazkaria izango da Bitorrene jatetxean. Sarrerak aurrez erostea komeni da.

Ekintza hauetaz gain, ikazkintzarekin zerikusia duten tresnen erakusketa egongo da Herri antzokian. Bestetik, hainbat aintzinako ofizio ikusgai izango dira plaza inguruan jarriko diren postuetan. Eliza ikusteko aukera ere izango da.

Joxe Bikuñak adierazi nahi izan duenez, "Ohitura Zaharren egun honekin adierazi nahi duguna zera da: gaurko jende askok uste du mundua beti horrela izan dela, zer nahi, hura, berealdiko erraztasunak... baina mundua honetara iristeko pauso asko eman behar izan ditu eta gu, horiei esker, aro latz bat bete zutelako, erosoxeago bizi gara gu. Guk ere baditugu arazoak, baina fisikoki, lanbide errazagoak ditugu".

**Erretegi bezala
zabalik**

- * Eguneroko menuak
- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak

Asteburuetan menu berezia: 20 euro kafea barne

Zubierreka,9 © 943 16 25 23 LAZKAO

**GOIERRI
Goiztiri AEK**

Maila guztiak ordutegi guztiak

Santa Maria Kalea 4-2-ekz
Ordizia /943889174
ordizia@aek.org

Urbialde Plaza 7 Behe
Beasain /943889340
beasain@aek.org

**ikasi euskara
eman izena aek-n**

izterketa, elizak eta hitu homologatuak www.aek.org 902 36 22 94



Elixabete Agirre: “Beste begirada batekin itzuli nintzen Bartzelonatik: gehiago pintatu dut geroztik”

Donostian jaioa da 1974an (askoren iritziz) “burgeskume” hau [halako orok han jaioak baitira ia beti, bilbotarrak edonon legez...], baina bea-saindarra, baina munduko hiritarra... Jaioterriko Alkartasuna Lizeoan lehen eta bigarren ikasketak (batxilergoa) egina, hirugarrenak berriz Santurtzin, segidan Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan Arte eta Diseinua ikasi zuen. ‘Escola Massana’-n alegia: arte aplikatuak eta bisualak egin zituen bertan (Gaudi hil zeneko antzinako ospitalean) 1996-2000etan. Barnak probatu zuen bere barnea. Txikitatik zekarkien edo zetorkion arte ederretarako grina eta bizi den arterainokoa duela esango genuke.

Margolari, argazkilaria, diseinugile eta artista polifazetikoak den honi betidanik gustatu izan zaio plastikaren mundua eta gazterik joan zen Barnara Arte Ederren baliokidea den Arte eta Diseinu graduatutza egitera. Serigrafia, informatika, e.a.-etako zenbait ikastaro egin zituen era berean. Historia eta Arte teoria, geometria, argazkilaritza, perspektiba, gidoi idazketa, arteetarako aplikazioak, irudiaren prozedura garaikideak, irudiaren semiotika, lengoia eta politika, zer ez ote zuen ikasi han...!

Bartzelonako 5 urteetan 'Creació Jove Merce'99'-n, istalakuntza eta erakusketak Virreina-n, Rambletan, Ciudadella zonaldean, A Capellan, Hangar-ean (politikoki zuzena ez den egoitza alternatiboan, Fura dels Baus, e.a.-en kontzentrazio gunean...). Geroztik antzerki eta pintura ikastaroak eman, hainbat saltsetan parte hartu, eta bere bizitzaz ere *obra-dearte*a egin nahi duela dirudi: gustu finekoa dugu, edonon erakutsi litekeen lauki politikoki xuxenen egilea, juxtu-juxtu bera halakoa ez bada ere... Gaztea izan arren, kurrikulun potoloa. Elixabete bezala, betea. Ekaitz perfektua.

'Barnatik datorren artista bat naiz ni...' Badirudi lan asko egin zenuela han. Esperientzia hartu eta istalakuntza batzuetan parte hartu zenuen... 'Lebitatu' eta guzti egiten zenuela han esan zenidan behin... Zer zen han

inportantea, zerk markatu zintuen: lagunak, giroa, artisten ezagutzak...?

Bai, bai. Hemendik neraman giroa, eta gogoia ere bai, oso ona zen; baina behin han, hango jendea ezagutu eta gero, artisten ezagutza ezin hobea izan zen neretzat. Joan aurretik ere banekien mundu hori nuela gustuko, baina ez nuen oinarririk, ez perspektibarik. Eta han ikasi egin nuen arlo guztietan, bai artearen historia ere, bi pintzelkada ematen, gutxi bainekien... Artisten bizitzeko era bera, ez dakit; artean autodidakta nintzen, 'zerbait ikustean pizten nintzena', nere kasa nenbilena...

Eta formazio bat jaso edo hartu zenuen.

Bai, gure eskola hartzea ere ez zen $2 + 2 = 4$, gure artean asko hitz egin behar genuen, azken batean bilaketa bizi batean genbiltzan. Eta, noski, zerbait bilatzen ari zarenean, aurkitzen joaten zara; bizitza beste era batera ikusten duzu, adinarekin batera doaz eraldatzen gauzak ere; nik uste denok izan ditugula kezka gazte(ago)tan, baina Barnan ikasitakoak asko balio izan dit. Nere ikaskideak ere, bakoitza bazen nor, 'etxe bakoitzeko onenak': bat alemaniarra, bestea arabiarra, multikulturala zen giroa, bakoitzak bere patria potestadea, eta mila gauza ikusten dituzu. Neri izugarri aberastu zidan!

Egin zituen lagunak mantendu izan ditu. Bakarren bat berezia ere izango zuen... "Bai, ba, Gorka Mohamed kantabriar-iraniarra, ARCO'n esonitu duena, esaterako... Agian gertutasunagatik, ikuspuntu antzeko-parezidoak genituelako. Bartzelonako jendea, Beasaingo bat ere banuen inguruan, donostiarra...". *Estudiante bizitza, tunante/bubame giroak:* "Giro bereziak bizi genituen, batzuetan dena ere ez zen polita, baina...". *Barnako mundua hemengo giro itxiagoa baino zabalagoa ote?* "Hura askoz biziagoa zen, baina erre ere egiten zinen, jende oso-oso berezia baitzen, ideia pilo bat...". *Zaletasuna aurretik zekarkien, ordea.* "Baina ikasketak oso garrantzitsuak dira, irakasleekin ere harreman oso estua izan nuen eta eskolaz kanpoko ekitaldiak, istalakuntzak egiteko

gonbiteak edo aukerak ematen zizkidaten, puntu oso onak izan genituen... Ez dakit, nere bizitzako momentu on-on bat izan zen".

Baina goazen hasieratara. Gauginen koadro baten izenburua bezala: nor zara, nondik zatoz, nora zoaz? Nola hasi zinen? Akaso etxetik, gurasoen jostundegia; txikitatik patroiak, e.a. ikusi eta akaso zure soinarentzako diseinuak edo arropa 'ad hoc' egin izan duzu gaztetxotan...

Ez ditut bi gauzak nahastu nahi. Jakina eskolatik ateratakoan dendan laguntzen nuela, hori mastekatu dut, bai eta orain ere... Baina hori baino eragin handiagoak ere bai: txikitatik altxatu naiz goizetik musika jarri, beti pelikulak ikusten, beti joan izan naiz antzerkira, kontzertuetara, supernormala izan da hori, eta beti bilatu eta aurkitu izan dut nere zaletasunak dituen jendea... Esaterako, hemen Goierriko gertuko artistak ezagutu izan ditut betidanik, diziplina desberdinetakoak, baina geroago, Barnan ez zen mugarik (muga-ezen bertigoia eta guzti), flipatzen nuen eta handik beste begirada batekin itzuli ginen. Gero eta gehiago pintatu eta irakurri dut geroztik...

Zutaz zerbait gehiago konta diezaguzu. Garrantzitsuenak edo, gustura ote zauden orain arte egin dituzun artelanekin.

Batzuekin bai, ez hainbeste bestekin... Kreatiboak izan direnekin bai. Denak dute funtsen bat; askok usteko dute brotxakada bat hemen eta bestea han direla, baina ez da 'zergatik bai'... Hori sinistu nahi duenak sinistea du, jakin nahi ez duenaren kontuak dira horiek. Nik uste denok dugula sorkuntzarako, eta une bakoitzak bere puntua du. Maider Urretabizkaia lazkaotarra eta bion kasua, adibidez: bion artean koadro bat egitea erabaki

genuen. Eta kontua ez zen ateratzen zena ateratzea, baizik eta elkarrikketa gai bat ipini eta hortik bakoitzaren ekarpenak ekartzea. Logikoki, bakoitzari zerbait desberdina atera zitzaigun, baina konbinaketa eta emaitza onak izan ziren.

Arau batzuk ere ipiniko zituztela beharbada, nik, zenbateraino ametitzen zioten elkarri, bata besteari ez inposatzea... "Ez zen hori ere, materialak-eta zeuden tartean, esperimintatu nahi izan genuen... Geroago, kooperatzaile moduan ibili eta Nikaragutatik etorri berria nintzela, iruditzen zitzaidan hemen bizitza 100 km./orduko zihoala, eta azpi-igeriketa egiten hasi nintzen, akatzen ninduen erroilo guzti hartatik deskonektatzeko. Hortik atera zen nere lehendabiziko margolan saila. Ordura arteko koadroak bakanak eta itxiak ziren; gerora sailka egin ditut lanak".

Esate baterako. Ameriketatik orain 5 bat urte itzuli eta hango naturaren inpaktua islatu zuen, 'dengue' gaixotasunaren ondorio latzak hunkitu zuten, eta hango umeen mina eraman zuen bere obra-lanetara: argazkiak serigrafiatu eta gainean margotuz; edo izpiritu kritikoz armaturik zenbait lan burutu ditu torlojuak, metalak, e.a. integratuz lientzoetan.

Eta 'lebitatzea' nolatan lortzen duen? "Inolako estupezazienterik gabe, ezer gabe nola nor daiteken badakit, ez dakit jendeak jakingo ote duen...". *Noiz? Sortze prozesuan, kuantu, momentuan...* "Jakina, ze istorio piloa pasatzen zaizkizu hor burutik". *Benetako sorkuntza desberdin guztietan bezala, prexixoki.*

"Ikasketak oso garrantzitsuak dira, irakasleekin harreman estua izan nuen eta eskolaz kanpoko ekitaldiak, istalakuntzak egiteko gonbiteak edo aukerak ematen zizkidaten... Nere bizitzako momentu on-on bat izan zen"

Serigrafia: industria vs. kultura

Barnan, besteak beste, serigrafia ikasi zenuen. Horren teknikaz zerbait esaguzu.

Mihise gainean margotzea da; estanpazio metodo horrek alde bat du beste aukeren aurrean: inprimaketa ez da superfizie bat beste baten kontra jarrita egiten, baizik eta ehun baten bitartez (ohiz, zetazkoa edo tela metaliko fin bat), zeinarengandik errodillo batek tinta edo pintura pasatzen duen. Diapositibak edo argazkiak photoshopen erretokatu eta normalean zetazko telara pasa eta horren ehunduraren arabera da bere atzealdean eramango duen pintura margena, horrek ematen dio kontsistentzia gehiago edo gutxiago. Buzoak, goardasolak, kamisetak... denetik egin izan dugu. Serigrafiak iraunkortasun gehiago eskaintzen du beste estanpazio ximpleagoen aldean, baina makineriak nahiko garestiak dira. Loreak mendian, Callate la boca, e.a. elastikoekin hasi eta inperioak muntatu dituzte ia...

Eta mundu honetan dauden mundu-txo horietaz mintzo zait Agirretarra:

“Kukuxumusuko nagusiarekin topo egin nuen Bilbon makina erosterakoan; 50 milioiko makineria erosi zuen berak Barnan, ia automatikoa (guztiz automatikorik ez dago), 20 eta piku beso zituen ‘olagarroa’... Bien bitartean, garestia izan arren, nerea manuala zen”.

Ikasketetan ez ezik, geroago serigrafiaz gehiago ikasi Artelekun eta zure publizitate estudioa/nezioa ireki zenuen Beasainen, ‘S. Serigrafia’ izenekoa. Afiziotik ofiziorako alde...

Bai; kontua da hemen bizi garena eta hau erabat industrialia da; hortaz, hemen artelanetik bizitzea utopia da ia, eta afizioaren antzeko ofizioa hartzea izan liteke aukeretakoa bat. Sortzailea da, nahiz enpresaritzatik ere zerbait baduen. Artelekura geroago joan nintzen, serigrafia egiteko makinak saldu zizkidanak jarri ninduen hango arduradunarekin harremanetan. Bisita batzuk egin eta zenbait klaseetara joan nintzen, bai eta bertako arduradunarekin aritu eta gauza pareka egin ere, baina nere airera joana naiz.

Badakigu diruak eta esfortzuak inbertitu,

makinak ipini eta tailer ikusgarria izan zenuela. Urte batzuetako esperientziaren ze balantze egiten duzu?

Gogorra da enpresari arloko gai hori, ez dago asko egin nerezako... Azkenean ‘ezin bizia’ ere izan liteke: komertzial lana, inprimatu, langileei ordaindu, burokrazia... Gogorra izaten hasi zen; gero, berriz, serigrafiako tintek berun piloa dute, disolbagarriak, eta osasun arazoak izan nintzakeela (asma punttua hor dago), ez zidala merezi eta hala utzi nuen...

Saiatu, saiatu zen azken muturreraino: langile ordainduak, papeleoa... Hortik liberatu eta gero, nahiz eta makineriak saldu, haien eroslearekin badu tratua bat oraindik Elik serigrafia egin ahal izateko eta halako lanen mostrak erakusten dizkit.

Hurrena, berriz, euskal kulturarekin harremanak estutu nahian ‘Elkar’-en inguruan ibili zen Donostian, pixka batean. Eta geroztik zer? Estranjeriako teknikari bihurtu eta atzerritar adingabe mutilekin ari da lanean, kooperazio arloan lan piska bat egin eta gero...

Adibidez, Dalík, Picassok, e.a.-ek, abstraktua egin arren, figurak marrazten ederki zekitela... Zure adierazpen kontzeptuala zertan da? “Pintura figuratibo soila egitekotan, fotoak edo seriegrafia hor daudela” esan zenidan, teknika inpresioagatik aldatzen duzula-edo.

Pintura figuratiboa egin ohi dut, erakusteko moduan dauzkat margolanak; figuratiboa baloratzen badakit, baina nahiago dut imajinazioa pixka bat gehixeago erabili. Nik esango nuke nerea kontzeptuala dela, beti kontzeptuak baitarabilzkit; oso gustukoa ez dudana da dena komentatu beharra, hori biluztea da, eta, nolabait, ‘ezpata’ horrek bi aho ditu; nahiago dut nire intimitateari eustea, ez dakit jende guztiak horrela pentsatzen duen, ze hain konplexuak gara!; nik ere ez daukat beti era batera presentatu beharrik... neurak, e.a., “ni de coña” ez naiz biluzten!, lehenago jartzen naiz fisikoki larru hutsik, psikikoki biluzik baino!

“Nik ez daukat inori kontatu beharrik nere egia” esan zidala behin, gogorarazten diot... Baina esan Esther Ferrer bat titubian azaldu dela performantze batean, eta sexuarekin erlazioatutako arteak ez diola atentziorik ematen, erantzuten dit Elik. Eliren artelanak, oro bar, oso politikoki zuzenak direla otutzen zait, oso gaur egungoak, irudi ‘goxoak’ jartzen dizkigu muturrean. Koadro atseginak direla esango dizu ezagutzen dituzten guztiek. “Bai, ba, ahalik eta politikoki xuxenena izaten saiatzen naiz, ze ez izateak egoera pattal eta ‘piztietara’ eraman zaitzake”.

2002tik Beasaingo Artisten Topaketetan, 2008an Altarten, iaz Tolosako Frontoian, zuen Agirre jantxidendan 2005 eta aurrean, Aterpen eta beste taberna batzuetan orain dela gutxi, zenbait erakusketa paratu izan dituzu, eta badirudi aurrera begira ere badituzula asmo batzuk... Zer bilatzen ari zara?

Beti bilatu izan dudana: kultura eta mundua, zerbait berria ekarriko didan jendea ezagutzea. Ez beti dena esplikatzen aritu behar izatea...

Esan beharrekoa artelanetan esan behar duela, diot nik, ez daukala argitu beharrik, eta baietz berak: “Laster naiz Donostiako Kursaleko tabernan zintzilikatzekotan azken sailekoak; asmoak baditut, baina gogoak..., geroz eta zailagoa egiten zait. Hortik zerbait bizitzen saiatzen naiz, edo behintzat gozatzen, segitu ahal den bezala, hor egon eta ea zer suertatzen den, ibiltzeko eta jendea ezagutzeko. Jakiteko, ezagutzeko eta bizitzeko beste era bat delako, arruntagoak edo okerragoak direnen aldean...”. *Faranduleroen dikotomia, bere barnean tirabira bat du: mundu bobemiorik gabe ezin da bizi, baina bertan dagoenean, ordea...!* “Jende kreatiboa juntatzen garenean ere, zer esan, burua ‘pitzatzen’ eta guzti hasten zaizu; eta horrek ere pixka bat izutzen zaitu”. *Pitzatuak ere ez du esan nahi zulatua, horratio.*

Ea nork esaten duen astakeriarik handiena, ‘epatatze’: “Bai, bada: eta frenatzen ez bada, lehertu liteke”. *Besteen gustuko izaten, besteak abozabalik uzten saiatzen garena denok ere; gaztetan eragin eragiten zaituzten besteak eta hau edo bura egitera ere ez al zaituzten nolabait behartzen, galdetzen diot.* “Noski, eta pittin bat ‘txoratze’ joera baldin baduzu, ba, neurria hartu edo moztzen ez baduzu, batek hau dio, eta besteak beste hau, eta bakoitza gara mundu bat. Beraz, zerekin gertatzen naiz...?”.

Idea-ekaitzetaz ari gara. “Eta sinesten duzun horretara iristea zerbait kostatu bazaizu, hor sortzen den kaosa...! *Kontua da, nola atera probetxua kaosari? [Geroago erantzungo dio Eli Agirrek horri...]* Orain, Artea bizitzetik bizitzeko artera, bizikizunetatik bizibidera. Inspirazio eta musak alde batera, hurrengo galdera (kontu serioagoak, serio-serio, serie-lanak).

Garai batean ez duzu zure obra saldu nahi izan. Baina orain, krisiarekin igual bai...?

Kaosak hori du ona: probetxua atera dakiokela; baina ez gara kaotikoak, beste era bateko berrestrukturaketa egin dut Barnatik etorri gero. Ez da gazteagotan bezala, orduan neurak



pil-pilean zenezkan... Orain gauzak hobeto egiten ditugu, eta irteerak bilatu nahi dizkiot egin nahi dudana. Interes komertzialari ere ezingo diogu muzin egin, ez; hortik ere joan nahi dut...

Lehenago 'gorri eta beltzen' zaleago ez ote ginen, orain 'urdin-arrosa flou-ak' nahiago ditudala nik; laranja koloreak, 'beroagoak, pausatuagoak, helduagoak' somatzen dizkiudala Eliri... "Badakizu zerk eragin didan? Arabiar kulturak, formetan eta gauza askoetan eskisitu iruditzen zait... Harrituta uzten nau...!"

Gustu eskisitu dazula iruditzen zaigu bati, biri eta hiruri baino gehiagori, egiten duzun gauza edozein dela ere: artearen imitazioa balitz bezala bizitza, bai artelanetan, bai janzkeran, zure bizitza pertsonal berean...

Baina gauza intimoa da eta nahiago dut hor ez geratzea. Eskisitu kontu hori dela eta, nolakoak garen! Aspaldi ez naizela ateratzen esaka neuzkan lagunak, atera gara eta ezagun batek esaten dit 'pija' bat naizela uste omen duela jende batek. Eskisitu izate hori ez nuke nahi inork nahasterik pijo izatearekin; ez naiz kontsumitzaile xahutzailea, baina kutxiak & gauza ederrak, atseginak, gustuko ditut. *Koadrilako lagun batzuentzat 'hippyonga' bat da, beste batzuentzat pija...! Guzti horren gainetik sumatzen dut nik.*

Guk zabaltzen dugun geure itzala eta besteek gutaz uste dutena nola bartzan dugun, filosofiaz hitz egiten dugu bai, baina ez prentsa arrosaz, horiaz edo Martin Filosia futbolariaraz... Zenbat nortasun edo aurpegi ote ditugun besteentzako... Barnatik itzultzean hemengo mundu zaaabaaar bonekin topo egitean zer? "Ba, oso itxia eta zaila da, baina denboraren poderioz bazoaz moldatzen. Arantzak ateratzen zizkizun lagun batek loreak botatzen dizkizu orain...". Mundu hau aldatzen ez badugu ere, zure ingurunea goxatzea... "Bai, eta badirudi iman bat dudala, beti izan dut jakin mina eta jende diferentea, xele-break, e.a. erakartzen naute edo erakartzen ditut. Badakit askotan zenbait leku edo zirkuluetan mugitu ezker, 'markatua, katalogatua' izateko arriskua dudala, baina behar dut jakin eta hemengo edo kanpokoekin irekia naiz".

Zure koadro batzuetako pertsonaia batzuk (edo collage, edo argazkietakoak...) arreak, beltzaranak, mutil gazteak, umeak, atzerritarak... Nikaraguan kooperatzaile edota adingabeko mutiko magrebierrekin lan egin izan duzu tekniko gisa. Kolore marroiskak-eta, esperientzia horrek ekarri dizu...?

Baaai, asko maite ditut, mestizajea, badakizu... Baina kanpoko

zein bertako zenbait jendekin ere hoztu izan naiz, ze arazoe-kin aurki zaitezke; noski herri batean bizi zara eta jende bat agurtzen duzu, kalean ere ez duzu beti esne txarrez ibili nahi, baina distantziak ere jartzen dizkiot konfiantza galdu dudan horri.

Autokritikoa ere badela esaten diot Elixabeteri, eta edozein moduz neska "ona ala guaya" ere ez duela izan nahi esana duela. "Onbre, denoi gustatzen zaigu gustatzea!". Adoleszentzia 'aspaldi' pasa bazaio ere, gazte sentitzen da, jeta badirudi dextente eragiten diotela pertsonak, barremane.

Bukatzen joateko: Zer da zuretzat, emakume gisa, artista izatea? (Ala alderantziz, artista gisa emakume?)

Ez dut askorik hausnartu horretaz, ez zait iruditzen hainbesteko diferentzia edo balantzarik dagoenik gizonen eta emakumeen artean, arte munduan. Idazleen artean ez dakit, lan munduan badaude aldeak oraindik. Gu, kamarada modura tratatzen gara; bai, badira beste istorio edo puntu batzuk, 'egoa' ere hor egoten da. Emakumeak beharbada gehiago du gordetzeko edo gehiago gordetzen du.

Arte guztien zale aparta zarela badakigu, baina zein erreferentzia manejatzen dituzu, zehazki, arte ederretan?

50/60koak ditut gustuko: Joseph Beauys, happeningak egiten lehenbizikoa (kalean, edozein lekutan egin liteke, performantzea bezala, biak dira piska bat transgresoreak, baina performantzea aurrez meditatua da eta happeninga bapatekoa). Mario Merz, iglooak egiten eta orain hainbeste eramaten den bertziklatzeen aitzindaria; artista jeinuaren nozio erromantikoaren desmitifikatzailea; 'Art povera'-ko artista italiarrak jarraitu zioten, Umberto Eco, e-a.-ek ere bai... Pop-artea: Warhol, Lichtenstein, Jackson Pollock... Barceló, bere hiru-dimentsionalitatea, eskultura/pintura... Testurak ditut gustuko, baseak txoratzen naute... Errenazimendua ere maite dut... Pepe Otal artixtak liluratu ninduen, hezur haragizkoa zen, orain museo bat egin diote... Arte naif-a, Klimt, Boticelli, Munch, Van Gogh... Askok sorgintzen naute.

Eta horrekin kitto egin beharko dugu oraingoz; zer esana emango duen emakume eta 4 x 4 bonen (Russ Meyerren jainkosa izan zitekeen neskaren) etxeko disko, filma eta liburu pilo (literalak) deskribatzen ezin ninteke bisi. Eliren gustu ederreko beste egileen erreferentziak beste baterako beharko. Orain berriro 'Amerikastolan' uda egin eta gero, kooperante gisan, jarraituko du, ziur.

Jon Mikel Arano Aramendi

Maider Gaztañaga, kirolarekin gozatuz

Gaztxotan, igerilari bezala ezagutu genuen Maider Gaztañaga. Garaipen ugari lortu zituen ordiziarrek. Beka bati esker, Estatu Batuetara joateko aukera izan zuen ikasketak eginez, igeriketan sakontzeko. 24 urte zituenean igeriketa utzi eta korrikari heldu zion. Ama izan eta haurrak koxkortu dituenean, berriz ere kirola egiten hasi da. Orain, kirola eginez gozatzen jarraitu nahi du.

8 urte zituenean, Ordizian bertan, igeriketan hasi zen Maider Gaztañaga. Maila onaren ordainetan, Gasteizko taldera joateko aukera izan zuen 13 urterekin. 16 urterekin, etxetik oraindik ere urrutirago joateko aukerari heldu zion: Estatu Batuetara.

Aukera aprobetxatu eta beste ordiziar batekin batera, ikasiz, igeriketan sakontzera joatea erabaki zuen. “24 urtera arte egon nintzen Estatu Batuetan. Azkeneko urte eta erdian, lanean aritu nintzen eta igeriketa utzita neukan. Urte asko dira”, aitortu du Maider Gaztañagak.

Gogorra izan zen, baina merezi zuela uste du. “Bere garaian, nahiz eta sakrifikatua izan, nire bizitza zen. Bitxikeria bezala, gogoratzen naiz, 1992an, ebakuntza bat egin zidatela eta operaziotik esnatu eta medikuari galdetu nion lehenengo gauza, ea igerian jarraitu nezakeen, izan zela oraindik ere inkonsziente nengoela. Orain atzera begiratuta, ikusten duzu dedikazio horrek zure koadrila baztertzea ekartzen duela. Tabernetan ezin nuen sartu, parranda askorik ezin nuen egin... bidean gauza asko uzten duzu baina momentu horretan ez zara konsziente, zure bizitza hori delako. Ez naiz damutzen hori egin izana

baina azkenean, erabaki guztiak bezala, erabaki bat hartzen duzunean beste zerbaitegi utzi egin behar duzu”.

Aseta

Estatu Batuetan igeriketari eskainitako azkeneko urteak gogorak egin zitzaizkion ordiziarri. “Estatu Batuetan beka batekin nengonez, beka mantentzeko igeri egin beharra neukan. Eta zirkulu batean sartzen zara. Obligazioa da. Ez duzu nahi baina joan beharra daukazu, bestela ezin dituzu ikasketak bukatu...”.

Duela 12 bat urte utzi zuen igeriketa. “Hain nazkatuta bukatu nuenez, ondorengo bi urtean, ezer ere egin gabe egon nintzen. Butakan etzanda egoten nintzen, zapping egiten. Esaten dute txarra dela dena uztea baina aspertu egin nintzen”, dio Gaztañagak.

Korrika

Igeriketa utzi eta pare bat urtera, oraindik Estatu

Batuetan bizi zela, korrika egiten hasi zen. Maratoi bat baino gehiagotan parte hartu zuen. Ordiziara itzuli zenean ere, korrikarekin jarraitu zuen.

Haurdun gelditu zenean, beste kirol egiteko aukerarik ez zuenez, igerilekura joaten zen kirol pixka bat egiteko”. Baina igeriketarekin hain nazkatuta bukatu nuenez, ez dut ezertxo ere egiten. Hondartzara joanez gero igeri egitera joaten naiz baina igerilekuan ez. Haurdun gelditu nintzenean, egiten nuen, egin nezakeen gauza bakarrenetarikoa zelako. Bestela, gorputzak ez dit eskatzen igeri egitera joatea”.

Orain haurrak koxkortuak direnez, berriz ere korrikari heldu dio. 35 urte ditu Maiderrek. Ordiziako Bolitas taldeko kideak dira Maider eta senarra, eta taldeko kirolean gustura dabil. Gozatu egiten du kirola egiten. “Denak laguntzeko prest daude. Triatloi pare batean parte hartu dut eta neoprenoa

“Igeriketarekin hain nazkatuta bukatu nuenez, hondartzara joanez gero igeri egitera joaten naiz baina igerilekuan ez”

16 urterekin Estatu Batuetara

Estatu Batuetara joateko aukera izan zenuen. Erabakia erraza izan al zen? Niretzako gurasoentzat baino errazagoa. Ordiziako bi neska joan ginen. Toki ezberdinetara joan ginen baina biok joateko aukera izan genuen eta horrek erraztu egiten du erabakia. Gurasoentzako gogorra izan zen.

Egokitzapena erraza izan al zen?

Nahiko erraza izan zen, nahiz eta inglesa asko nekiela uste izan. Konturatu nintzen ez nekiela ezer ere. Oso oroitzapen ona daukat. Inglesa ikasi nuen.

Zein ikasketa egin zenuen?

Karrera han egin nuen baina ez daukat konbalidatuta. Ingenieritza zibila egin nuen baina ez didate konbalidatu. Hemen idazkaritza ikasi zuen. Oraingo lana gehiago gustatzen zait.

eta bizikleta utzi egin dizkidate. Lagungiro ona dago”, dio ordiziarrek.

Triatloiak aipatu ditu Maiderrek eta igeriketan abila izanik eta bizikletan ibiltzea ere gustuko duenez, triatloi motzetan parte hartu du uda partean. “Bizikletan ibiltzea ere gustatzen zait. Eta probatzea pentsatu nuen. Triatloi motza egin nuen, zegoen motzena. Bi triatloi motz egin ditut, korrika bakarrik egin beharrean, pixka bat aldatzeagatik. Gustatu zait”.

Datorren denboraldiari begira, triatloi luzexegoetan pentsatzen ari da ordiziarra.

Korrikari dagokionean ere, lasterketa motzetan dabil Gaztañaga. Garaipenak ere lortu ditu gainera. Azkoiti-Azpeitin adibidez, Gipuzkoako lehenengo ema-



kumezkoa izan zen. “Azkoiti-Azpeitin uste dut hirugarren emakumezkoa izan nintzela, baina Gipuzkoako lehenengoa. Pentsatzen dut, emakumezkoen lehenengo postu bat eta gizonezkoena ez dela berdina. Mutiletan askoz ere maila altuagoa dago. Neskak ez gara animatzen edo ez dakit zergatik, baina maila bajuagoa dago”. Igandean, herrian bertan, Josetxo Imaz lasterketa izango du. Donostian, San Silbestre Ordizian...

Aurrera begirako erronkei buruz galdetuta, “gogoia izatea bakarrik eskatzen dut. Triatloietarako gogo izugarria daukat eta hori da eskatzen dudana bakarra. Ez dut eskatzen halako lasterketan halako denbora egitea. Gogoia izanez gero, egiten da”.

“Orain gozatzen ari naiz”

Esan dezakegu, kirola, hiru fase ezberdin bizi izan dituzula. Bakoitzak berea izango zuen, ezta? Lehenengo fasean, ordu pilo bat, dedikazio handia zen. Gainera, Estatu Batuetan horretarako nengoen. Ikasteko bai, baina bereziki igeriketarengatik nengoen. Dedikazio handia zen. Nik uste dut horregatik aspertu nintzela.

Bigarren fasean, korrika aritu nintzen, oraindik Estatu Batuetan bizi nintzela. Baina besterik gabe, gehiegi egin gabe. Baina gogoia sartu zitzaidalako hasi nintzen. Hona etorri nintzenen, serioago heldu nion, maratoietan.

Orain berriz, gozatzen ari naiz. Bigarren fasean ere gozatu nuen baina orain desberdina da. Bi ume txiki edukita, ahal duzunean atera behar zara entrenatzera, ahal duzuna egin eta etxera. Eta korrika, azkarrena da. Ordubeterekin nahikoa da. Senarrari ere gustatzen zaio eta ondo moldatzen gara.

Orain emakumezko gehiago ikusten da korrika. Aldaketa hori antzemango zenuen.

Mutilek, txikitatik egin izan dute kirola. Neska asko, orain hasi dira. Lehendik kirolean ibili diren mutilak gehiago dira eta azkarrago jartzen dira forman. Nire inpresioa hori da.

Mendiko lasterketak ere badira. Probatzeko asmorik bai?

Ez daukat denborarik. Mendiak korrikak baino gehiago eskatzen du. Triatloietan ateratzeko bzikletan entrenatzeko, ordubete egin eta etxera etortzen nintzen, ez nituen lau eta bost ordu egiten. Ez daukat denborarik. Bi aukera daude: kirolari denbora eskaintzea eta zure umei denbora hori kentzea; edo umei denbora eskaintzea. Nire umeak txikiak dira. Geroago behar bada denbora libre gehiago izango dut. Dena den, ez dut ziklo horretan sartu nahi. Nik badakit zer den astebukaerero konpetitza eta entrenatzea. Badakit horretan sartzen baldin banaiz, utzi egingo dudala. Gaur bizikletan, bihar korrika, hurrengoan lagunekin mendira... ez dut errutina bat hartu nahi. Obligazioz urte askotan aritu naiz eta ez daukat horretarako gogorik.

Adama Diarra senagaldarra

Beasainen bizi da duela urtebetetik eta euskara ikasten hasi berria da

Adama Diarra senegaldarra da. 25 urte ditu. Duela urtebete etorri zen Beasaina bizitzera. Kaleko salmentan ibiltzen da herriz herri gurditxo hartuta. Euskara ikasten ere hasita dago.

Familiako aurreko belaunaldi ezberdinek egiten duten bezala, Adama Diarrak familia utzi eta Europara etortzea erabaki zuen duela urtebete. Beasaina etorri zen. Adamaren aita, Suitzan egona da. Aitona ere bai. Sei anai-arrebetan bigarrena da Adama eta, bizimodu hobea baten 2-3 urterako etorri da. "Ni lanera etorri naiz hona. Lana egin eta urte batzutura itzuli egingo naiz. Gazteak ateratzen dira Senegaldik, baina gero itzultzeko, eta ez hemen gelditzea. Frantzia eta Belgika aldera jende gehiago joaten da eta hizkuntzagatik errazagoa dute lana bilatzea. Bizitza hori da. Animaliek ere emigratu egiten dute. Janari bila joaten dira baina gero itzuli egiten dira", dio Adamak.

Gogorra egiten ari zaio familiarengandik eta lagunengandik urruti bizi beharra. Dena den, "familia berria" du Adamak eta Beasainen, Ordizian eta Lazkaon bizi diren senegaldarrekin elkartzen da astean behin. "Senegaldar gehiago ere badi-



Euskara ikasten

Euskara ikasteari garrantzia handia ematen dio Adamak. Euskarak bertako gizakiak, gizartea eta kultura hobeto ezagutzeko balio duelako. Kale saltzailea izaki, esperientziak erakusten dio lagunak egitea errazten diola euskarak. "Euskaraz hizketan hasten naizenean, jendeak interes gehiago azaltzen du, dio Adamak.

Euskara

Astean behin Hernanira joaten da, Banaizbagara elkarteak antolatutako euskara eskola hartzera. Hernaniko taberna batean, mahaiaren elkartzen da euskaraz ikasi nahi duten jatorri eta kultura ezberdinetako jendea. Orain dela bi hilabete hasi zen euskara ikasten. "Orain dela bi hilabeterarte ez nuen hitzik egiten euskaraz. Petra Elserri (Banaizbagara elkarteko kideari) eskertu nahi diot. Aстетik astera hobetzen ari naiz".

ra Goierriin. 10 bat ezagutzen ditut. Beasainen 5, Ordizian, 3 eta Lazkaon 2".

Kaleko salmenta

Lanari dagokionean, zaila dagoela dio Adamak. Bera, gurditxo hartuta, herriz herri ibiltzen da produktu ezberdinak saltzen. Eskumuturrekoak, galtzerdiak, zapiak... "Lan gogorra da, beti kalean

ibiltzea oso gogorra da. Bizitzeko kalean lan egin behar dut, bestela ezin naiz bizi. Guk lana egiten dugu, ez gara eskean ibiltzen. Beste mota bateko lanak bilatzea zaila dago. Lagun bat Lazkaoko taberna batean ari da lanean". Lanbide horri esker, jende asko ezagutzen du Adamak. "Jende ona eza-gutu dut", dio senegaldarrak.

Joera izaten da, saltzaileak esandako prezioa merketzera jotzekoa. "Regateoa normala iruditzen zait, hori da salerosketaren legea. Jendea ondo portatzen da".

Gaztelera eta euskara

Bere lanerako ezinbesteko tresna du komunikatzea. Gaztelera kalean ikasi du. Euskara ere ikasten ari da. Goierritarrek laguntzen diote horretan. "Seguran, Zegaman, Ataunen... ibiltzen naiz. Jendeak euskaraz hitz egiten dit, nik entzun eta saiatzen naiz errepikatzen", dio senegaldarrak.

Euskal musika ere entzuten du Adamak. "Kortatu eta Gatibu entzuten dut adibidez. Abestiak entzun eta errepikatu egiten dut euskara ikasteko. Borondatea jarriz gero ikasiko dut", aitortu du Adama Diarrak. Euskal Herria gainera, asko gustatzen zaio. "Euskal kultura asko gustatzen zait. Kultura ezberdin asko daude eta denak elkarrekin bizi dira", gaineratu du.

Altzagan egiten du Iñaki Gorostegik
Lau Haizeta ahuntz-gazta

Ahuntz-esnearen kutixiak



I diazabal Gazta gero eta sona handiagoa hartzen ari da mundu zabalean. Dena den, beste gazta mota batzuk badaude.

Horren adibide da, Altzagan egiten duten ahuntz-gazta. Lau Haizeta izena du Iñaki Gorostegik egiten duen ahuntz-gaztak. Krisi ekonomikoaren ondorioz kontsumoa zertxobait jaitsi bada ere, bere lekua egiten ari da ahuntz-gazta ere.

Ez da berria Iñaki Gorostegi lan honetan. Duela 21 urte, “barruak eskatzen” zionari heldu, eta Gaintzara joan zen bizitzera, eta ahuntzak erosi eta ahuntz-gazta egiten hasi zen. “Lana utzi eta nahi nuena egiten hasi nahi nuela erabaki nuen. Ahuntzak erosi eta ahuntz-gazta egiten hasi nintzen. Ardia ez zait gustatzen. Ahuntza asko”, dio Iñaki Gorostegik. Pentsatu eta egin. Duela 9 bat urtetik, Altzagan, Abalia auzoan, bizi da. Etxebizitza, ikuilua eta gaztandegia ditu bertan.


Gurean ez dago ohitura handiegirik ahuntz-gazta jateko. Hori badaki Gorostegik. “Ez dago ardi-gaztarekin konpetizerik. Beste mundu bat da”. Dena den, “sukaldaritzan garrantzia hartzen ari da ahuntz-gazta. Sukaldaritzan joku handia ematen du gaztak. Idiazabal Gaztarekin ikusi zer egiten den. Sukaldaritzan asko erabiltzen da eta nik uste dut sukaldaritzak asko lagundu diola gaztari. Beste herrialde batzuetan indar handiagoa du”.

Iñaki Gorostegik onartzen du, ez dela garairik onena, ekonomia krisiaren ondorioz, kontsumoa jaitsi egin baita. Dena den, ahuntz-esnearekin egin daitezkeen produktu ezberdinei etorkizun ona ikusten die Gorostegik. Gazta, gazta freskoa, jogurt-ak... Momenuan gazta bakarrik egiten du. Jogurt-ak egiteko beste baimen batzuk eta tresnak beharko ditu. Gazta freskoa berriz, egin eta jan behar denez, merkatua da arazoa.

Ahuntzak

Murtziarra deitzen zaion arrazako ahuntzak ditu Gorostegik. “Lehen frantziarra esaten zaiona neukan baina ahuntz murtziarrera pasatu ginen. Hauek urte guztian izaten dute esnea”, argitu du Gorostegik.

Momentuan, esnerik gabe daude Lau Haizetan. “Momentuan etenalditxo bat izango dugu, gorabehera batzuen poderioz. Ahuntz batzuk ernai daude eta abenduan esnea izango dugu.



Esne zuriaren onurak

Esnea zuria dela esaten da, baina aldea badago esne batetik bestera. Ahuntzaren esnea, behiaren esnea baino zuriagoa da. “Esnea zuria-zuria da, urdin-gris puntu batekin”. Ahuntz-esnearen inguruan ere bada bitxikeria bat: garai batean, bularreko esnea ematerik ez zuten amek, ahuntz-esnearekin hazten omen zituzten haurrak. “Astoaren esnea omen da emakumezkoen antzekoena. Hurrengo parekoena ahuntzarena omen da. Hemen ere baziren, baserrietan ahuntzak, etxerako esnea ateratzeko. Adineko askok esaten didate ahuntz esnea edaten zutela. Behi-esnea onartzen ez duten haurrentzat oso egokia da ahuntz-esnea. Kasuak eza-gutu ditugu eta ahuntz-esnea eraman eta oso ondo joan zaienak. Rakitismoa duen haurrentzako esnea saldu dugu guk”. Gaztaren kasuan, oso osasuntsua omen da ahuntz-gazta. “Gaztatan, osasuntsuena dela esango nuke. Grasako proteina digerigarria dela esaten dute eta medikuek asko agintzen dute. Umeentzako ere oso ona da”.

Bitartean, kanpotik ekartzen dugu”. Hori bai, “egokiena edo idealena, etxeko esnearekin egitea izango litzateke. Baina guk ahal baino gehiago eskatzen hasi ziren eta kanpotik hasi ginen esnea ekartzen”.

Beste bi lankide ere gerturatu zaizkio Iñaki Gorostegiri, “denera iristen ez nintzelako, ganadua utzita neukan. Baina bi lankide gehitu zaizkit eta orain esnea ere ateratzen dugu”. Datorren urteari begira, suspertzen hasteko asmoa daukatela aitortu digu.

Gazta

Gaztaindegira eraman gaitu eta azkeneko gaztak moldeetan sartuta ditu. Kilo erdiko gaztak dira. Hozkailura sartu garenean dena den, gaztarik gehienak txikiak direla ikusi dugu; 150 gramokoak. Hain txikia izatearen arrazoa azaldu digu Gorostegik: “saltzeko errazagoa delako dela uste dut”. Handiak ere egiten ditu, 800 gramokoak. Eta forma ezberdinekoak ere bai: ‘ruloa’ deritzona.

Batez ere ahuntz-gazta laktikoa egiten du “frantsesen erakoa. Ardi-gazta entzimatikoa izaten da. Esnea epelean edukita, bere kaxa utzi behar da lan egiten, 24 ordutan. Hartzidura laktikoa izaten da. Jogurtak bezala egoten da eta bere gisa galtzen du gatz ura, eta solidifikatzen joaten da. Ardi-gaztari gatzagia botatzen zaio, orduerdia moztu, prentsatu egiten da... Ahuntz-gazta ez da prentsatzeko. Esneak bere lana egiten du. Beti laguntzen zaio gaztagi pixka batekin baina ez dauka zerikusirik ardi-gaztarekin. Esan daiteke, jogurra dela, gazta eginda. Jogurra egin eta gero gazta egitea da gutxigorabehera”, zehaztu du Gorostegik. Ahuntz-esnea pasteurizatu egiten dute.

Jan aurretik, hozkailuan, gutxienez, 20 egunean eduki behar da. “Gazta txikia, 20 egunera eginda dago. Zenbat eta gazta handiagoa, denbora gehiago behar du heltzen”.

Gaztaz gain, ahuntz-esnea eraldatuz produktu bat baino

egin daiteke. Jogurtak esate baterako. Ezagunentzat egiten ditugu jogurtak. Instalazioak ez dauzkagu prest jogurtak egiteko. “Beste erregistro bat behar du horrek. Ikusiko dugu aurrera begira”.

Gazta freskoa ere beste aukera bat da. Baina horrek zailtasun gehiago du, egin berri-berritan jan behar baita. “Kontserbanterik ez dugunez erabiltzen, lehenbailehen saldu behar da, 3-4 egunera jan egin behar baita. Kontserbanteak sartu litezke baina guk naturalaren aldeko apustua egin dugu, baina merkatuak berak askotan ez dizu uzten. Gazta freskoarekin lan egiteko, adibidez, egin eta saldu egin behar duzu eta merkatua ez dago horretarako prestatuta. Oso produktu goxoa da. Baina konplikaturak da”, azpimarratu du lasartearrak. “Ardi-gazta, urtebetera

**“Ahuntz gazta,
3 hilabetera
saltzen ez bada,
ez du balio”**

saldu daiteke, baina guk egiten dugun ahuntz-gazta, 3 hilabetera saltzen ez bada, ez du balio”, azaldu du.

Garai batean azokaz azoka ibiltzen ziren ahuntz-gazta saltzen baina gaur egun Lur-Lan Elkartearen bidez, merkatal zentro handietara bideratzen du bere gazta. Salmentak behera egin du azkenaldian baina merkatua badagoela uste du Gorostegik.



Ahuntzaren defentsan

Ahuntzaren defendatzaile sutsua da Iñaki Gorostegi. Betidanik gustatu izan zaio ahuntza, zuhaitzari sokatik lotuagatik ere, bere bizitza aurrera ateratzeko gai den animalia delako. Txikitatik ikusi izan du hori. “Gurasoak baserrian jaiotakoak ditut. Ni kalean hazitakoa naiz, Lasarten. Baina beti izan dut baserriko grina. Beti ahuntza gustatu izan zait. Txikitan ahuntzak ikusten nituen, negu eta uda, lotuta, eta bizimodua atera egiten zuen. Nola da posible, animalia bat lotuta, askotan janik gabe egotea! Antxumeak hazten ere bai, maitasun handiz. Asko babesten du. Ardi batek adibidez, txakur bat ikusten badu, izutu egiten da eta arkumea utzi eta alde egiten du. Ahuntzak ez, normalean bere umea defenditu egiten du. Nik uste dut, azkarrek direla”, dio Iñaki Gorostegik.

Ahuntzak dena den, orokorrean, fama txarra du. “Ez nago oso ados horrekin. Kaltea egin du ahuntzak baina nik uste dut, azkenean kalterik handiena, gizakiak egiten duela, ez dugulako ondo manejatzen eta ibiltzen ganadua. Goierrri alde honetan, ahuntzen bat azaltzen bada, tiroa botako zaio, errazena egiten du, jakin gabe ahuntz hori norena den edo bere jabeak zein helburu duen. Dena jaten duenaren fama du. Zuhaitzetan kaltea egiten du. Baina zuhaitzetan kaltea egiten du, ahuntzak, ardiak, astoak eta denak. Egia da kaltea sortzen duela. Ahuntza azkarra delako ere bada hori, bere bizimodua aurrera ateratzen duelako”, azpimarratu du Gorostegik.

**SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA**

Mota guztietako
gida-baimenak
Teorikoa 5 egunetan
CAP baimen profesionala

Aita Urdaneta

ORDIZIA

☎ 943 88 72 76



ondoeta

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: ondoeta@ondoeta.com

www.ondoeta.com

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia **OLABERRIA**



Beasain

Arana-Bideluzeko jaiak

Irailak 24, ostirala:

18:00etan: Buruhandiak eta txistulariak

19:00etan: Txokolate jana umeentzat.

20:00etan: Disko-festa.

24:00etan: Disko festa.

Irailak 25, larunbata:

12:30ean: Baxoerdi edate herrikoia.

19:00etan: Antzerkia haurrentzat.

20:00etan: Euskaraokea.

24:00etan: Kontzertua.

Irailak 26, igandea:

12:00etan: Toka erretiratuentzat.

12:00etan: Baxoerdi edate herrikoia.

12:00etan: Haur kirolak umeentzat.

18:30ean: Pailazoak.

19:00etan: Luntxa Aizkorri Mendizale Elkartean, Arana, Bideluze eta J. M. Iturriotz kaleetan jaio eta bizi diren erretiratuentzat.

Idiazabal

Urtsuarango jaiak

Irailak 24, ostirala:

19:30ean: Jaien hasiera, suziri eta kanpaiekin.

Ondoren: Afaria: mondejuak, gixatua eta ardi txuletak.

22:30ean: XVII. Mus azkarra lehiaketa.

Irailak 25, larunbata:

12:00etan: Meza.

Ondoren: Txistulariak, Xabier Zeberio eta Amaia Agirre bertsolariak eta Dani Oiarbide eta Peio Urdangarin trikitilariak.

14:00etan: Udaletxe bazkaria.

16:30ean: Patxin eta Potxinen ikuskizuna, jokoak eta txokolate jana haur eta helduentzat.

Ondoren: Bertsolarien bigarren saioa.

Iluntzean: Afaria eta trikitixa.

Irailak 26, igandea:

12:30ean: Herri kirolak: Urtsuarango taldea, Idiazabalgo taldearen aurka.

14:00etan: Herri bazkaria. Iban Urdangarin eta Iker Zubeldia bertsolariek eta Dani Oiarbide eta Peio Urdangarin trikitilariak alaituko dute bazkaria.

17:00etan: XIX. Toka lehiaketa.

Lazkaibar auzoko jaiak

Irailak 24, ostirala:

19:00etan: Jai-batzordeko ordezkari batzuk Arangoiti Egoitzara joango dira, han dauden Lazkaibarko auzotarrak bisitatzen.

20:00etan: Poteo-herrikoia. Ondoren Beti-Bizi elkartearen afari-merienda egingo da eta Mus-partida jokatu da.

Irailak 26, igandea:

10:00etan: Goiz heresia auzoan. Jesusek eta Maitek botako dituzte suziriak.

12:00etan: Beasaingo Andre Maria Zeruratuaren Parroki Elizan, Meza hildako auzotarren alde, urtebete honetan hildakoen alde batez ere.

14:30ean: Senidetahun-bazkaria. Bazkalondoan, Beasaingo txistulariek joko dute eta dantzari batek aureskua dantzatu du.

Lazkao

Maizpideko ekitaldiak

Irailak 23, osteguna:

21:30ean: Xabi Sansebastian kantaria, Maizpideko zinema-aretoan.

Irailak 28, asteartea:

21:30ean: Bertso-afaria: Anjel M. Peñagarikano eta Beñat Gaztelumendi. Maizpideko zinema-aretoan.

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak

Filtroak, olioak,
engrasea

Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

over Urraki
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**

Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79

urraki@over.es www.over.es

Arama

Kultur astearen azken txanpa

Irailak 23, osteguna:**18:30ean:** Pintxo lehiaketa, Arrikutz elkartearen.**21:30ean:** Urteko ekintzen argazki emanaldia.**Irailak 24, ostirala:****18:30ean:** 'Egizu lo, Tartalo' antzerkia.**21:30ean:** Urteko ekintzen argazki emanaldia.**Irailak 25, larunbata:****10:00etan:** Mendi ibilaldia. Ibilbidea: Arama-Altzagarate-Altzaga.

Ordizia

Gazta eta ardo azoka

Gazta eta Ardoen III. Feria ospatuko da Ordizian, urriaren 1ean eta 2an. Honekin batera, Ordizia Txapeldun gazta lehiaketaren XXIII. edizioa egingo da. Ordiziako Udaletik jakinarazi dutenez, "iazko esperientzia arrakastatsua kontutan izanik, izendapen desberdin eta penintsula osoko gazta eta ardoak berriro bilduko dira" Ardoetan ere, jatorri ezberdineko ardoak izango dira Ordizian. Nafarroa, Errioxa, Arabako Errioxa, Ribera del Duero, Toledo, Toro, Rueda, Somontano, Aragoi, Extremadura, Rias Baixas, Portugal...

Plaza Nagusian izango da azoka: ostiralean 18.30etatik 21.30etara eta larunbatean zehar, 11.00etatik 14.30etara eta 18.00etatik 21.30etara.

Legorreta

III. Film laburren lehiaketa

Kultur asteari begira, aurtengo film laburren lehiaketa antolatuko du Legorretako Udaleko Kultur Batzordeak. Telefono mugikorraz, argazki makinaz edo bideoz filmatutako lanak aurkeztu beharko dira. Partaidetza eta kreatibitatea bultzatzea da lehiaketaren helburua. Lehiaketan edozeinek parte har dezake, adin, nazionalitate, edo beste inolako mugarik gabe.

Gaia, Euskara izango da, aurtengo Kultur Astearen gai nagusia ere euskara izango baita. Film laburrek ezin dute 5 minutu baino gehiago iraun, izenburuak barne. Lanak originalak izan behar dira, argitaratu gabek eta ezin dira lehenagotik sarituak izandako bideoak aurkeztu, ez eta beste lehiaketa baten erantzunaren zain dagoen filmarik izan.

Aurkezten diren lanak DVD euskarrian aurkeztu beharko dira, Patxi Ezkiaga kultur etxean, urriaren 22an baino lehen. Sari banaketa urriaren 28an egingo da Legorretako herri zineman aurkeztu diren lanak ikusi ondoren.

I. Pintura lehiaketa

Legorretako Udalak, I. Pintura lehiaketa antolatuko du. Lehiaketa honetan edonork parte har dezake. Lanaren gaia eta erabili beharreko teknika libreak izango dira. Partehartzaile bakoitzak, lan bakarra aurkeztu dezake. Lanaren gehienezko neurria, 1m x 1m izango da.

Lanak Patxi Ezkiaga Kultur Etxean entregatuko dira 2010eko urriaren 18a baino lehen, astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 20:00etara. Kartazal itxi batean egilearen datuak eta telefono zenbakiak sartuko dira.

Lanak, Jubilatu Elkartean tabernan erakusgai egongo dira urriaren 20tik aurrera. Bi epaimahai izango dira: bata profesionala eta bestea herritarrek osatua. Sari banaketa urriaren 31n egingo da. Epaimahai profesionalak emandako hiru sari eta herritarrek osatutako epaimahaiak emandako bi sari izango dira. Lehenengo herritarrarentzat ere saria egongo da.




MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA

KOL. Zko: 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)


PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak



NELSON BARBOSA
ERREFORMAK

Gremioen koordinazioa

tel.: 687 837 011 Unzurruzaga, 9 behea **SEGURA**

Ataun

VII. Argazki rallya

Ataungo Udalak antolatutako, urriaren 3an, VII. Argazki rallya izango da. Lanbidez argazkilariak ez diren zaletuek izango dute parte hartzeko aukera. Argazki digitalak aterako dira. Izen-ematea, egun berean egin beharko da, goizeko 9etatik 10etara Ataungo Udaletxearen aurrean. Izen-emateko momentuan memoria txartelak begiratuko dira. Partaide bakoitzak 5 euro ordainduko ditu. Gaiak ralyaren egunean jakinaraziko dira.

Sari-banaketa eta aukeratutako argazkien proiektzioa, azaroaren 20ean larunbatean, eguerdiko 12etan Ataungo Herri Antzokian izango da. Hiru sari banatuko dituzte: lehenengo saria, 300 euro eta oroigarria; bigarren saria, 150 euro eta oroigarria; lehen herritarrari saria, 90 euro eta oroigarria.

Ordizia

Jose txo Imaz memoriala

Txindoki Atletismo taldeak antolatutako, X. Jose txo Imaz memoriala jokatu da, irailaren 26an, goizeko 11etan hasita. 10 kilometroko ibilbidea egin beharko dute korrikalariak, Ordizia-Beasain-Lazkao-Ordizia artean. Izena emateko bi era daude. Irteera eta helmuga, Ordiziako Altamira estadioan izango da. Posta elektronikoa: txindokiat@yahoo.es. Telefonoak: 676-735073, 685-755946, 943-085088.

Zaldibia

Oroimen historikoari buruzko jardunaldiak

36ko gerraren inguruko oroimen historikoari buruzko jardunaldiak izango dira Zaldibian. Hainbat ekitaldi daude antolatuta.

Erakusketa: Irailaren 21etik 29ra, Aranzadi Zientzi Elkartean eskutik, 'Hildakoak hilobietatik ateraz, duintasunak berreskuratuz' erakusketa, Antzokian. Ordutegia: Astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara eta larunbatean eta igandean 12:00etatik 14:00etara.

Antzerkia: Irailaren 24an, 22:30ean, Antzokian, Lasarteko Landaberri Antzerki Eskolaren 'Garraxi isilak' antzezlan. Sarrera: 5 euro.

Hitzaldia: Irailaren 28an, 19:00etan, Antzokian, 'Oroimen historikoaren inguruan solasean. Hizlariak: Lourdes Herrasti, Aranzadi Zientzia Elkarteko historialaria eta Gotzon Garmendia, Lau haizetara Gogoan elkarteko kidea.

Mendi astea

Irailak 29: 'Bagabiltza bidea, Rondoy mendia (5879m.). (Aritza Monasterio eta Mikel Saez de Urabain) eta 'Dolomitak: Marmoladaren eskalada' (Mikel Saez de Urabain). 19:30ean.

Urriak 1: 22:00etan, herritarren ikusentzunezko gaua. 2009-10 denboraldian mendi elkartetik antolatutako irteeretak argazkiekin egindako muntaia. Dolomitak: Italiako Alpeetan barrena. Roman, Karmen, Txili, Marian, Gorosti.

Urriak 3: Baraibar-Zaldibia zeharkaldia, goizeko 7,30etan plazatik abiatuta. Eguraldi txarra bada, atzeratu egingo da. Izena urriaren 1erako eman behar da. Langileek 16 euro ordaindi beharko dituzte; lanbabeek 12.


ZUBARA
 Ereikuntzak s.l.

Promozioak, Ereikuntzak,
 Erreformak...

943 65 34 93 - 649 46 32 89
 ABALTZISKETA


LEIAR



KRISTALDEGIA
 ERAKUSKETA:
 Ezkiaga Pasealekua z/g
 ☎ 943 88 88 24
 BILTEGIA:
 Salbatore Industrialdea
 ☎ 943 88 60 70
BEASAIN

Ikaskide

irakaskuntza eta pedagogia

www.ikaskide.net

ESKOLA LAGUNTZA: Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, Moduloak

HIZKUNTZA ESKOLA: Ingelera eta frantsesa

UNIBERTSITATE MAILA: Goierriko Unibertsitatea (MU)

MEKANOGRAFIA eta INFORMATIKA

LAGUNTZA PEDAGOGIKOA: Irakurketa, kalkulua, ikasketa teknikak

Joan Iturralde, 5 eta Urbialde, 7 - BEASAIN
 943 160 120 - 685 722 403 - 675 006 462

Kol. zkia.: 764


Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
 Inplantologia
 Periodontzia

Artikulazio eta ahoko minak
 Radiologia digital zerbitzua
 Eskaner digitala

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118

ORRIZER KANTU 2010



BELCEBULES
IRAILAK 24 (OSTIRALA)



EPELE ANAIAK
"KOMUNEKO PAPEREN DATZITAKO POSTAK"
URAILAK 1 (OSTIRALA)



EMDON
URAILAK 15 (OSTIRALA)



KANTU AFARIA
KUXKUXTU TXARRANGAREKIN
URAILAK 22 (OSTIRALA)



antolatzailea



*KONTZERTUAK 22:00ETAN HASIKO DIRA O'ELIKATUE ZENTRAN

laguntzaileak





Itsasoko lagun taldea 1946. urte inguruan

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Juan Mari Arzelus (Sarriegibarrena), Juana Telleria (Katalindegi), Inazia Lasa (Ariola), Mari Kruz Usabiaga (Usabiagabekoa), Manuel Albisu (Atinzabal), Isabel Lasa (Ariola), Joxepa Aierbe (Goikostatua) eta Marino Izagirre (Bekostatua).

Beheko ilaran: Dionisio Usabiaga (Oria), Maria Mujika (Urteaga) eta Antonio Garmendia (Kamiño).



GERTU
ENPRESA AHOLKULARIAK - ABOKATUAK

San Inazio, 5 - 20200 BEASAIN
Tel: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
gertu@gertuasesores.com




ARANDIA
G A R A J E A
Autoen konponketa

N-1, z/g Iurre Auzoa OLABERRIA ☎ 943 88 09 47



IBAI ONDO
ARROZTEGIA

- Aroztegia
- Altzariak neurritara
- PVC, aluminio eta egurrezko lehioak

Katea, 5 -Antzizar auzoa - BEASAIN
Tel.: 943 16 40 40 / 639 631 640 Faxa: 943 16 47 47
www.mueblesibaiondo.com



ZEGAMA
OKINDEGIA
Eskuz egindako ogi naturala
Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Oskarbi, Osina, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muno, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viana eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegui:** Inaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak, Centro 100. **Urretxus:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.

ardiPithecus

estudio pilates beasain

INAUGURAZIOA urriaren 1ean

17:00etan: Harrera.

18:00etan: Txema Agirreren hitzaldia pilatesen onurei buruz.

18:30ean: Estudio pilates eskola.

18:30ean: SGA eskola.

19:00etan: Hipopresibo eskola (RSF).

Lehenengo eguneko eskolak irekiak eta doakoak izango dira. Hartu ezazu lekua.



Estudio pilatesa (makinak)

Matt pilatesa (lurrean)

Pilates gaztea

SGA (Streching Global Activo)

Gimnasia Hipopresiboa

RPG

Drenaje linfatikoa

Kontrakturak kentzeko masaje lasaigarria

Erreabilitazioa eta lesioen prebentzioa


Urbialde, 1 solairuartera (La Caixa gainean) - BEASAIN - T. 943 886 958

berrikuntzak // bainuak // sukaldeak // zeramikak // hidromasajea // gremioak // proiektuak



dekorazioa // diseinua // irisgarritasuna // aholkularitza teknikoak // laguntzen bideratzea

Barandiaran
ZERAMIKAK
Beasain
senpere 7
943 887 972
www.
Barandiaranzeramikak
.com




U010

UDAZKENEKO
OPORRAK 2010

**NORA JOAN
AUKERATU ZUK**

eta gainontzekoa
egingo dugu guk

abio@abio.es
www.abio.es



3.adina
**ESKAINITZA
BEREZIAK**



VIAJES
ABIO

BIDAIAK

943 805 311

TENERIFE

	8 EGUN / DÍAS		15 EGUN / DÍAS	
	IRAILA	URRIA	IRAILA	URRIA
Luabay Tenerife	456€	450€	555€	542€
Palmeras playa	342€	337€	496€	485€
Aptos panorámica Garden	351€	346€		
Hotel Marquesa/Condesa	370€	364€		
Hotel Catalonia Las Vegas	401€	396€		

LANZAROTE

	8 EGUN / DÍAS		15 EGUN / DÍAS	
	IRAILA	URRIA	IRAILA	URRIA
Hotel Las Gaviotas	460€	454€	738€	726€
Hotel Beatriz Costa & Spa	452€	447€	725€	710€

Itinerariak Madrildik hegazkinarekin. Azken prezioak Dena Berritu (DB) eremimenean eta gela bikoitzetan. 2009.eko udako iteera jakin batzuetarako baliagarriak. Datasak kontsultatu. Viajes Iberia VISA baxteko berririkin ordaintzen dutinei aurrez kontutan hartu gabe dagoen %7ko deskontua ezarriko zaio prezioari.

VISA deskontua ezartzen den ordainketetan ezin da deskontu finantziaketara. Espainian MBNA Europe Bank Limited-ek duen sukurtsalean jaulkitako barteia. Finantza erakundeak emandako balmenari lotua. *Plan precio seguro Viajes Iberia*-ren baldintzak kontsultatu.